# Berehalako Informazio Hornidura: Ohiko Galderak

**Berehalako Informazio Hornidura: Ohiko Galderak** ........ **1**

**1. GALDERA OROKORRAK** ........ **10**

6786 1.1. Zer da BEZaren Berehalako Informazio Hornidura (BIH)? ........ 10

6786 1.2. Zergatik ezarriko da berehalako informazio hornidura (BIH)? ........ 10

6789 1.3. BEZaren subjektu pasibo guztiek erabili behar dute BIH sistema? ........ 10

6790 1.4. Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dagoen subjektu pasibo batek SII aplikatu nahi ez badu, bere borondatez utz dezake araubide hori SII abian jarri aurretik? ........ 10

6791 1.5. Entitate taldeen araubide berezian dagoen eta SII erabili nahi ez duen subjektu pasibo batek uko egin diezaioke araubide horri BIH abian jarri aurretik? ........ 11

6792 1.6. Zer egin behar da BIH sistemari norbere borondatez heltzeko? ........ 11

6793 1.7. BIH sistema hautatu ondoren, ezinbestekoa da aldi jakin batez erabiltzea? ........ 11

6794 1.8. BIH sistemari heldu ondoren, uko egin dakioke? ........ 11

6795 1.9. Gerta daiteke BIH sistematik baztertzea edo ezin erabili izatea? ........ 11

6796 1.10. Zein dira BIH sistemaren funtzionamenduaren oinarriak? ........ 12

6798 1.12. Gaur egun BEZaren erregistro liburuetan ezartzen den informazio bera bidali behar da? 13

8271 1.13 SII erabiltzen duen zergadun batek hautatzen badu fakturak bezeroaren edo hirugarren baten bidez egitea, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi behar dio? ........ 13

6799 1.14. Zer onura ekarriko die sistema berriak zergadunei? ........ 13

6787 1.15. Noiz hasiko da aplikatzen BIH? ........ 13

6800 1.16. Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dauden zergapekoek 340 eredua aurkeztu behar dute? ........ 14

6801 1.17. Zer kasutan aurkeztu behar dizkiote fakturazio erregistroak BFAri BIH nahitaez erabili behar dutenek? ........ 14

6802 1.18. Zer eragin dauka BIH sistemak zerga eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen duten enpresetan? ........ 14

6809 1.19. Zer arautan arautuko da BIH? ........ 15

7944 1.20. Noiz bidali behar dira fakturazio erregistroak AFAra? ... 15

2. ERREGISTROA GALDERA OROKORRAK ... 17

6803 2.1. Nola bidal daitezke era elektronikoan fakturetako datuak Bizkaiko Foru Aldundira? ... 17

6804 2.2. BIH erabiltzen duten subjektu pasiboek IGIC edo IPSI zergen eraginpean dauden eragiketei buruzko informazioa eman behar dute? ... 18

7945 2.3. Nola konpon daitezke erregistroko akatsak? ... 18

7946 2.4. Nola erregistratu behar ditu faktura egileak faktura zuzentzaileak? ... 18

BERRIKUSIA 7947 2.5. Nola erregistratu behar ditu bidaltzaileak ordezpenezko faktura zuzentzaileak, “S” kodekoak, alegia? ... 18

7948 2.6. Nola erregistratu behar ditu faktura egileak aldeen ziozko faktura zuzentzaileak, “I” kodekoak, alegia? ... 25

7949 2.7. Zuzenketa agiri bakarra erabiliz, hainbat zuzentzen badira, nola identifikatu behar ditu faktura egileak zuzendutako fakturak? ... 26

7950 2.8. Nola aldatzen edo baliogabetzen da oker egindako faktura bat edo identifikazio datuetan akatsak dituena (adb. Egin ez den eragiketa bati dagokiona)? ... 26

7951 2.9. Noiz bete behar da “Eragiketa data” eremua? ... 26

7952 2.10. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean? ... 27

7953 2.11. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean hainbat faktura batera zuzentzen badira zuzentze agiri bakarra erabiliz? ... 27

7954 2.12. “Eragiketaren deskribapena" izeneko eremua gako estandarrak erabiliz bete behar da? 27

7955 2.13. Noiz bete behar da “Kontrako alderdia” eta “IDfaktura” blokearen barruan ageri den “BesteID” eremua? ... 27

7956 2.14. Noiz bete behar da “Kontrako alderdia” izeneko blokearen barruan ageri den “Herrialdearen kodea” eremua? ... 28

7957 2.15. Nola erregistratzen da zenbait zerga tasa dauzkan faktura (egindakoa nahiz jasotakoa) bat? ... 28

7958 2.16. BEZ zergaren arloan, Entitate Taldeen Araubide Bereziko entitateak direnean, nork eman behar ditu fakturazio erregistroak era elektronikoan? ... 28

8272 2.17 Egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuetan, “Araubide berezia edo eragina” eremuan zer kasutan erabili behar da 06 gakoa (“BEZaren entitate-taldeen araubide berezia (maila aurreratua)”? ... 28

BERRIKUSIA 7959 2.18. Bada berezitasunik Erabilitako Ondasunen Araubide Bereziaren eraginpeko eragiketak erregistratzerakoan? .......... 29

7960 2.19. SII erabiltzen duten subjektu pasiboek IGIC edo IPSI zergen eraginpean dauden eragiketei buruzko informazioa eman behar dute? .......... 30

7961 2.20. Emandako edo hartutako dirulaguntzei buruzko informaziorik emango da SII sistemaren bidez? .......... 30

EGUNERATUA 8273 2.21 Aseguru-konpainiek emango dute aseguru-eragiketei buruzko informaziorik SII sistemaren bidez? .......... 30

7962 2.22. BEZ zergari lotuta dauden higiezinen eskualdaketen zioz jasotako zenbatekoei buruzko informaziorik emango da SII sistemaren bidez? .......... 31

7963 2.23. Negozioa garatzeko lokalaren errentamendu eragiketa nola erregistratu behar da? 31

7964 2.24. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari lotutako nekazaritza konpentsazioak ordaintzen dituzten eragiketei buruzko informazioa eman behar da? .......... 31

7965 2.25. Fakturen laburpena dakarten idazpenak erregistratu ahal dira BIH sistemaren bidez? 32

7966 2.26. Hainbat zerga tasa dituzten eragiketak jasotzen dituzten fakturen laburpenen idazpenak erregistratu daitezke? .......... 32

7967 2.27. Nola erregistratuko du faktura egileak faktura erraztuen ordez egindako faktura bat (4/2013 Foru Dekretuaren 7.2 artikulua)? .......... 32

7968 2.28. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean (4/2013 Foru Dekretuaren 13. artikulua, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudia)? .......... 32

8274 2.29 Fakturetan, zerga-oinarria, zergaren kuota eta fakturaren guztirako zenbatekoa dibisetan eman daitezke? .......... 33

7969 2.30. Finantza eragiketei buruzko informazioa eman behar da SIIren bidez? .......... 33

7970 2.31. Fakturan adierazitako atxikipenen zenbatekoaren berri eman behar da BIHren bidez? 33

8275 2.32 SII sistema erabili behar dutenek establezimendu iraunkorren bidez egiten dituzten eragiketen berri eman behar dute? .......... 33

7971 2.33. Kasuren batean, 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako fakturak erregistratu behar dira? .......... 33

7972 2.34. Erregistratu behar dira BIHren bidez 2018ko urtarrilaren 1etik atzeragoko ekitaldietako erregistro liburuei dagozkien jaulkitako edo hartutako faktura zuzentzaileak? .......... 34

7973 2.35. BIHri heltzeko data urtarrilaren 1a ez bada, nola hornitu behar da ekitaldiaren hasieratik BIH erabiltzen den datara arte doan epealdiari buruzko informazioa? .............................. 34

7974 2.36. Zer faktura erregistratu behar da F1 gakoa erabiliz? ............................................... 35

7975 2.37. "Faktura erraztua, 7.2, 7.3 artikuluak" izeneko marka erabil daiteke faktura zuzentzaileetan? ........................................................................................................ 35

7976 2.38. Nola jaso behar dira sisteman beste entitate baten ondorengoa den entitate baten fakturazio erregistroak, sozietatea berregituratzeko eragiketei dagokienez? .................................... 35

7977 2.39. Noiz erabili behar da akatsak saihestea helburu duen fakturazio erregistroen identifikatzailea? ........................................................................................................ 36

7978 2.40. Noiz erabil daiteke bidalketa epea bete ezin izan deneko erregistroak identifikatzeko marka berezia? ........................................................................................................ 36

7979 2.41. Zer informazio erregistratu behar da "Kanpoko erreferentzia" izeneko eremuan? . 36

8307 2.42 Nola erregistratu behar dira Erresuma Batuarekin 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eragiketak? ........................................................................................................ 36

**3. JAULKITAKO FAKTUREN ERREGISTRO LIBURUA: ........................................................................ 37**

6805 3.1. Bat etorri behar dute nahitaez 303 ereduan ageri den BEZ sortuak eta jaulkitako fakturen erregistroetatik datorrenak? ........................................................................... 37

6917 3.2. Faktura erraztuak erregistratzen direnean, zerga kuota banakatu behar da? ............. 37

6918 3.3. Zer eskakizun bete behar da jaulkitako fakturen laburpenen idazpenak egiteko, BEZaren Araudiaren 63.4 artikuluak xedatutakoari jarraiki? ............................................................ 37

6919 3.4. Bezero batek bidaiarien araubideko BEZa itzultzeko eskaera egiten badu, nola aldatu beharko da faktura jasanarazitako BEZa ez agertzeko? ............................................................ 38

EGUNERATUA 6920 3.5. Zer eragiketa mota sartzen dira "Araubide Bereziaren edo Zerga Garrantziaren Gakoa" eremuan? ........................................................................................ 39

6916 3.6. Zer eragiketa mota erregistratu behar da Jaulkitako fakturen erregistro liburuaren "Hirugarrenen jaulkita" izeneko eremuan? .............................................................................. 40

6921 3.7. BEZ zergari lotuta ez dauden baina salbuetsita dauden eragiketak erregistratu behar dira? Nola? ........................................................................................................ 40

6922 3.8. Nola erregistratzen da subjektu pasiboaren inbertsio eragiketa bat? .......................... 42

6923 3.9. Nola erregistratzen dira Europako Erkidegoaren barruko ondasunen emateak? ......... 42

6924 3.10. Nola erregistratzen dira esportazioak? ........................................................... 42

6925 3.11. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (12/1993 FDAren 9.1 artikuluko a) eta b) letrak)? ..... 43

6926 3.12. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (12/1993 FDAren 9.1 artikuluko c) eta d) letrak)? ..... 43

6927 3.13. Nola erregistratzen da negozioko lokal batzuen errentamendua dakarren jaulkitako faktura bat? ..... 43

6928 3.14. Fakturaren datuak zehazterakoan, adierazi behar da eragiketa ondasunen ematea den ala zerbitzugintza den? ..... 43

6929 3.15. Zer informazio jaso behar da "Likidazio aldia" izeneko blokean? ..... 43

6930 3.16. Nola erregistratu behar du fabrikatzaile batek zergaren zerga oinarriaren minorazioa bere banatzaileen bezeroei emandako kupoi, hobari edo beherapenen zioz? ..... 44

6932 3.17. Nola erregistratzen dira hainbat hartzaile dituzten fakturak? ..... 44

6933 3.18. ¿Nola erregistratzen da zenbakirik gabe jaulkitako faktura bat (foru administrazioak emandako baimena dela bide)? ..... 44

6934 3.19. Nola erregistratzen da araubide bereziko gako batzuk dituzten eragiketak dakartzan faktura bat? ..... 45

6935 3.20. Noiz erabili behar da araubide bereziko gako hau: 14 - Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat duten obra egiaztapenetan? ..... 46

7981 3.21. 14 gakoa ("Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat dutena") erabiliz adierazitako obra egiaztapenetan, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta kobrantza aurreratzen bada? ..... 47

6936 3.22. Noiz erabili behar da araubide bereziko gako hau: 15 - BEZ zerga sortu gabe duen faktura, segidako traktuari lotutako eragiketetan? ..... 47

7980 3.23. 15 gakoa (BEZ zerga sortu gabe duen faktura, segidako traktuari lotutako eragiketetan) erabiliz erregistratutako eragiketei dagokienez, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta kobrantza aurreratzen bada? ..... 47

8276 3.24 izango da. Zer faktura erregistratu behar da honako marka honekin: "Fakturazioa gasaren merkatu antolatuaren hirugarren eta seigarren xedapen gehigarrien arabera"? ..... 48

8278 3.25 izango da. Zer faktura erregistratu behar da F2 gakoarekin? ..... 48

8279 3.26 izango da. Erabil daiteke "Hartzaile-identifikaziorik gabeko faktura, 6.1.d artikulua" marka faktura zuzentzaileetan? ..... 48

9961 3.27 Noiz erabili behar da Jaulkitako Fakturen Erregistro Liburuan dagoen "Araubide Berezia edo Garrantzia" eremuko "Lanbide-ogibidesarien edo industria-jabetzatik eratorritako eskubideen kobrantzak hirugarrenen kontura, egilearenak edo bazkideen, elkartekideen edo elkargokideen

kontura, sozietateen, elkarteen, elkargo profesionalen edo kobrantza-eginkizun horiek betetzen dituzten beste erakunde batzuen kontura" 10. gakoa? ........ 48

BERRIA 9955 3.28 Noiz erabiltzen da 17. gakoa, IX. tituluko XI. kapituluan (OSS eta IOSS) aurreikusitako araubideren bati helduta? ........ 50

**4. JASOTAKO FAKTUREN ERREGISTRO LIBURUA: ........ 51**

6806 4.1. Bat etorri behar dute nahitaez BEZaren autolikidazioan jasotako BEZ kengarriak eta jasotako fakturen erregistroetatik datorrenak? ........ 51

6937 4.2. Zer agiri erregistratzen da faktura motaren gako hau erabiliz: "F6: kontabilitateko egiaztagiriak"? ........ 51

BERRIKUSIA 8280 4.3 Faktura zuzentzailea jasotzen duenak "Rx" gakoarekin erregistratu behar du? ........ 51

6938 4.4. Faktura erraztu baten ordez jaulkitako faktura baten hartzaileak horrelakotzat sailkatu behar du "F3" gakoa erabiliz? ........ 58

6939 4.5. Zer eskakizun bete behar da jaulkitako fakturen laburpenen idazpenak egiteko, BEZaren Araudiaren 64.5 artikuluak xedatutakoari jarraiki? ........ 58

6940 4.6. Faktura erraztuak erregistratzen direnean, zerga kuota banakatu behar da? ........ 58

BERRIKUSIA 6941 4.7. Erregistratu behar da eragiketa salbuetsi bati buruz jasotako faktura bat? ........ 58

BERRIKUSIA 6942 4.8. Erregistratu behar da zergaren kargapean ez dauden eragiketa bati buruz jasotako faktura bat? informatu behar da beti, "0.00" ........ 58

6968 4.9. Zer eragiketa jaso behar da "Araubide bereziaren gakoa / Transzendentzia" izeneko eremuan? ........ 59

6943 4.10. Nola erregistratzen da subjektu pasiboaren inbertsio eragiketa bat (BEZaren 12/1993 FDAren 84.Bat. 2 eta 4 artikulua), Europako Erkidegoaren barruko ondasunen eskuratze eta zerbitzuez kanpokoa denean? ........ 59

6944 4.11. Nola erregistratzen dira Europako Erkidegoaren barruko ondasun eta zerbitzuen eskuratzeak? ........ 60

EGUNERATUA 6945 4.12 Nola erregistratzen da inportazio bat? ........ 60

6946 4.13 Inportazioarekin parekatutako eragiketetan, zer informazioa eman behar da? ........ 62

6947 4.14. Nola erregistratzen dira 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 16.1 artikuluak arautzen dituen nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagariak? ........ 63

6948 4.15. 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 3.2 artikuluak arautzen duenari jarraiki, kreditu erakunde batek bidali eta faktura jaulkitzeko betebeharrik ez dagoen finantza zerbitzu salbuetsi bati dagokion ordainagiriak erregistratu behar dira? ........ 63

6949 4.16.- 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 3.2 artikuluak arautzen duenari jarraiki, aseguru erakunde batek bidali eta faktura jaulkitzeko betebeharrik ez dagoen aseguru eragiketa salbuetsi bati dagokion ordainagiriak erregistratu behar dira? .......... 63

6950 4.17. Nahitaezkoa da kuota kengarriari doakion informazioa ematea? .......... 63

6951 4.18. Zer informazio jaso behar da "Likidazio aldia" izeneko blokean? .......... 63

6952 4.19. Hainbanaketaren informazioa eman behar da BIHren bidez? .......... 64

6953 4.21. Erakunderen batek aduana helbideratzearen erraztea onartuta badauka (ADB batzuek sortutako zorra laburbiltzen duen izapidea), nola egin behar da erregistroa? .......... 64

8282 4.22 Zer kasutan erabili behar da "LC – Aduanak - Likidazioa" gakoa? .......... 64

8284 4.23 Nola erregistratzen dira ADBen zuzenketak? .......... 65

BERRIKUSIA 6954 4.24. Nola erregistratzen da araubide bereziaren gako desberdina duten eragiketak hartzen dituen faktura bat? .......... 65

8308 4.25 Inbertsio-ondasun bat eskuratuz gero, jasotzen den faktura erregistratzean nahitaez bete behar da "Inbertsio-ondasuna" eremua? .......... 66

8309 4.26 Zer kasutan bete behar dira "Hurrengo aldi batean kentzeko", "Kenkariaren ekitaldia" eta "Kenkariaren aldia" eremuak? .......... 66

**5. INBERTSIO ONDASUNEN ERREGISTRO LIBURUA. .......... 66**

6807 5.1. Zer eragiketa erregistratu behar da? .......... 67

**6. EUROPAKO ERKIDEGOAREN BARRUKO ERAGIKETEN ERREGISTRO LIBURUA .......... 67**

6808- 6.1 Zer eragiketa erregistratu behar da? .......... 67

8285 6.2 Nola erregistratzen dira ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan egiten diren ondasun-transferentziak? .......... 68

8286 6.3 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira, nola erregistratu behar da ondasunak jasotzen dituen enpresariari egiten zaion ondasun-ematea? .......... 69

8287 6.4 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta ondasunak aduanara heldu ondoko hamabi hiletan jasotzaileak eskuratzen ez baditu, erregistroa ezarri behar da BBEBELn? .......... 71

8288 6.5 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta ondasunak aduanara heldu ondoko hamabi hiletan haiek jaso behar zituen enpresaria beste batek ordezten badu, saltzaileak ondasunak kontsignan saltzeko akordioa sinatuta daukan batek, erregistroa ezarri behar da BBEBELn? .......... 72

8290 6.6 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta ondasunak aduanara heldu ondoko hamabi hiletan zerga aplikatzen den Espainiako lurraldera itzultzen badira, erregistroa ezarri behar da BBEBELn? ....................................................... 73

8291 6.7 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta ondasunak aduanara heldu ondoko hamabi hiletan beste herrialde batera (EBkora zein kanpokora) bidaltzen badira, erregistroa bidali behar da BBEBELra?................................................ 74

8292 6.8 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta ondasunak aduanara heldu ondoko hamabi hiletan ondasunak kontsignan saltzeko akordiorik ez dagoen enpresari bati saltzen bazaizkio, erregistroa bidali behar da BBEBELra? ........... 75

8294 6.9 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk transferitzen badira eta aduanara heldu ondoko hamabi hiletan ondasunak suntsitzen edo galtzen badira edo norbaitek lapurtzen baditu, erregistroa ezarri behar da BBEBELn?................................................. 76

8295 6.10 Nola erregistratzen dira ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan gertatzen diren ondasun-harrerak?.......................................................................................................... 77

8297 611 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk hartzen badira, nola erregistratu behar da hartzaileak gero ondasunok eskuratzea?................................................ 79

8300 6.12 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk hartzen badira, nola erregistratu behar da erosleak gero ondasunok saltzailearen biltegitik ateratzea?.................... 80

8301– 6.13 Ondasunak kontsignan saltzeko akordio baten esparruan ondasun batzuk hartzen badira, nola erregistratu behar da gero ondasunok eroslearen biltegian suntsitzea edo handik desagertzea? .................................................................................................................................................. 81

**7. URTEKO ZERGA ERAGINA DUTEN BESTE ERAGIKETA BATZUEN INFORMAZIAO EMATEA ....................... 82**

6957 7.1. Zer eragiketa erregistratu behar da?................................................................... 82

**8. BERARIAZKO GALDERAK – KUTXA IRIZPIDEAREN ARAUBIDE BEREZIA (KIAB) ....................................... 82**

6958 8.1. Nola erregistratzen dira KIABi lotutako eragiketak BIHren bidez?.............................. 82

6959 8.2. Salmenta egindakoan, ordainketa ez bada ezarritako epearen barruan jasotzen eta sortzapena eragiketa gauzatzen den urtearen hurrengoaren abenduaren 31n sorrarazten bada… Zein data erregistratu behar da eragiketaren kobrantza gisa?............................................................... 83

6960 8.3. Salmenta egindakoan, ordainketa ez bada ezarritako epearen barruan jasotzen eta eta kenkaria baliatzeko eskubidea urtearen hurrengoaren abenduaren 31n sorrarazten bada… Zein data erregistratu behar da eragiketaren ordainketa gisa?.......................................................................... 83

6961 8.4. KIABi lotutako eragiketei dagozkien jaulkitako fakturen laburpenen idazpenak erregistratu ahal dira? ............................................................................................................ 83

6962 8.5. Nola konpon daitezke erregistroko akatsak? ............................................................ 84

7982 8.6. 2018ko urtarrilaren 5ean, KIABi atxikitako enpresaburu batek eragiketa bat egin zuen beste enpresari batekin, 5.000 euroko zenbatekokoa. Faktura 2018ko otsailaren 1ean jaulki zuen. Hala ere, 2018ko irailaren 15a arte ez zuen faktura kobratu eta ordainketa banku transferentziaz egin zen. Noiz eta nola erregistratu behar dira eragiketa horiek? ..... 84

7983 8.7. Zer epe dago KIABi atxikitako eragiketei dagozkien kobrantzen eta ordainketen gaineko informazioa emateko? ..... 84

**9. BERARIAZKO GALDERAK - BIDAIA AGENTZIEN ARAUBIDE BEREZIA ..... 84**

BERRIKUSIA 6963 9.1. Nola idatzi behar dira bidaia agentzien araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek egindako fakturak? ..... 84

6964 9.2. Nola erregistratzen dira Bidaia agentzien araubide berezia darabilten subjektu pasiboek jasotako fakturak? ..... 85

BERRIKUSIA 6965 9.3. Nola erregistratzen dira fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoari jarraiki fakturatzen duten bidaia agentzien zerbitzuen prestazioak? ..... 85

6966 9.4.- Nola erregistratzen dira 8/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren hirugarren xedapen gehigarriak xedatutakoari jarraiki fakturatzen duten bidaia agentzien erosketak? ..... 86

6967 9.5. Nola erregistratzen dira Bidaia agentzien araubide berezia ez darabilten subjektu pasiboek jasotako fakturak? ..... 86

BERRIA 9956 9.6 Nola erregistratzen dira bidaia-agentzien araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek beren marjina gordina zehazteko egindako doikuntzak? ..... 86

# 1. GALDERA OROKORRAK

### 6786 1.1. Zer da BEZaren Berehalako Informazio Hornidura (BIH)?

Balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak artezteko sistema berria da, AFAren Egoitza Elektronikoaren bidez erabiliko dena. Izan ere, BEZa kudeatzeko orain arte erabili den sistema aldatuko da eta fakturazio erregistroak sortu eta ia berehala bidaliko dira.

BIH sistema berriari esker, laburragoa izango da eragiketa ekonomikoa egiten denetik faktura erregistratu edo kontabilitatean sartu arteko aldia.

### 6786 1.2. Zergatik ezarriko da berehalako informazio hornidura (BIH)?

Egungo teknologiek aukera berriak ematen dituztelako zergadunen arreta eta zergen kontrola hobetzeko.

### 6789 1.3. BEZaren subjektu pasibo guztiek erabili behar dute BIH sistema?

BIH sistema berria nahitaez erabili beharko dute gaur egun BEZaren autolikidazioa hilero aurkeztu behar duten subjektu pasibo hauek:

• Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta daudenek.

- Enpresa handiek (6.010.121,04 milioi € baino gehiago fakturatzen dutenek).
- BEZ multzoek.

Horrez gainera, subjektu pasiboek beren borondatez erabaki ahal izango dute sistema berria erabiltzea.

### 6790 1.4. Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dagoen subjektu pasibo batek SII aplikatu nahi ez badu, bere borondatez utz dezake araubide hori SII abian jarri aurretik?

Bai, epealdi berezia ezarriko da erregistro horretako baja eskatzeko; horretarako, errolda eredua aurkeztu beharko da aurreikusitako araudi aldaketa onartu ondoren.

**6791 1.5. Entitate taldeen araubide berezian dagoen eta SII erabili nahi ez duen subjektu pasibo batek uko egin diezaioke araubide horri BIH abian jarri aurretik?**

Bai, betiere epe arruntean egiten badu eta zergaren araudian ezarritako baldintzak betetzen baditu, errolda eredua erabiliz.

**6792 1.6. Zer egin behar da BIH sistemari norbere borondatez heltzeko?**

Zeinahi unetan, errolda aitorpenean adierazita (036 ereduaren 136 eta 532 laukiak). Hala, zergaduna sisteman jasota geratuko da aukera hori adierazi den likidazio aldia amaitzen den egunaren hurrengotik aurrera.

*Adibidea: Demagun BIH aukeratzen duen enpresa bat, 036 eredua 2019ko apirilaren 10ean aurkeztu duena. Enpresa hori sisteman jasota geratuko da 2019ko uztailaren 1etik aurrera.*

Aukera hori 2018an hautatu bazuen, BEZ zerga hilero-hilero autolikidatu behar izan zuen.

2018ko ekitalditik aurrera hasitako likidazio aldiei dagokienez, BIH sistemari heltzen dioten subjektu pasiboek hiruhileko likidazio aldiari eutsiko diote.

**6793 1.7. BIH sistema hautatu ondoren, ezinbestekoa da aldi jakin batez erabiltzea?**

Bai. Gutxienez, hautatzen den egutegiko urte osoan erabili beharko da.

**6794 1.8. BIH sistemari heldu ondoren, uko egin dakioke?**

SII sistema hautatzen dutenek gutxienez hautapena egiten den egutegiko urte osoko fakturazio erregistroak aurkeztu beharko dituzte.

Hori betetakoan, sistemari uko egin ahal izango diote ukoak ondorioak sortuko dituen urtearen aurreko urteko azaroko errolda aitorpenean.

**6795 1.9. Gerta daiteke BIH sistematik baztertzea edo ezin erabili izatea?**

Enpresaburu edo profesionalak hileko likidazioak egiten ez baditu:

Hileroko Itzulketen Erregistrotik irteteak badakar BIH ezin erabili izatea horren erabakia jakinarazten den likidazio aldiko lehen egunetik.

- Entitate taldeen araubide berezitik (ETAB) irteteak badakar BIH bertan behera utzi behar izatea irteten den egunetik.

Sistema aplikatzen ez duten subjektu pasiboek 347 eredua aurkeztu beharko dute.

**6796 1.10. Zein dira BIH sistemaren funtzionamenduaren oinarriak?**

BIH sistemari heltzen dioten subjektu pasiboek honako erregistro liburu hauek arteztu beharko dituzte BFAren Egoitza Elektronikoaren bidez fakturazio erregistroak bidaliz:

• Jaulkitako fakturen erregistro liburua.

• Jasotako fakturen erregistro liburua.

• Inbertsio ondasunen erregistro liburua.

• Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuen erregistro liburua.

Horretarako, fakturazioaren xehetasunak bidali behar dizkiote Bizkaiko Foru Aldundiari; informazio horrekin erregistro liburuak ia bertatik bertara arteztuko dira.

Informazioa baliabide elektronikoak baliatuz bidaliko da, XML mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bidez, hain zuzen ere.

Bidalketaren egituran goiburu komuna egon behar da; bertan erregistro liburuaren titularra nor den eta eragiketak zer ekitalditakoak eta zer alditakoak diren zehaztu behar da. Horrekin batera, fakturen berri ematen duen blokea egon behar da.

Gainera, fakturazio erregistroak web formulario baten bidez ere bidali ahal izango dira honako kasu hauetan: subjektu pasiboak eragiketa gutxi egiten dituenean; faktura jakin batzuen erregistroak bidali behar direnean.

Informazio hori guztia 2237/2017 Foru Aginduak, abenduaren 15ekoak, eta hori aldatzen duen 1036/2018 Foru Aginduak, ekainaren 8koak, onartu dituzten erregistro eremuen arabera emango da.

**6797 1.11. Fakturak AFAri bidali behar zaizkio?**

Ez. Fakturazio erregistroak bidali behar dira, 703/2017 Foru Aginduak, abenduaren 26koak, eta hori aldatzen duen 422/2018 Foru Aginduak, uztailaren 9koak, onartu dituzten erregistro eremuen arabera beteta.

6798 **1.12. Gaur egun BEZaren erregistro liburuetan ezartzen den informazio bera bidali behar da?**

Ez, gaur egun hainbat tokitan biltzen diren datu jakin batzuk bidali behar dira AFAren Egoitza Elektronikora:

• BEZaren erregistro liburuakFakturak• 340 eta 347 ereduak

**8271 1.13 SII erabiltzen duen zergadun batek hautatzen badu fakturak bezeroaren edo hirugarren baten bidez egitea, Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi behar dio?**

Bai. 036 ereduaren bidez jakinarazi behar dio, 363 laukian (“Faktura egin beharra eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek beteko dute”).

**6799 1.14. Zer onura ekarriko die sistema berriak zergadunei?**

Lehen fasean, BIH sistema berriak onura hauek ekarriko dizkie onuradunei:

- Betebehar formal gutxiago edukiko dituzte, 347 eta 340 ereduak ez baitira aurkeztu beharko.
- Informazio errekerimendu gutxiago egingo dira; izan ere, gaur egun egiten diren errekerimenduetako asko fakturak edo fakturetako datuak eskuratzeko egiten dira, eragiketa batzuk egiaztatu ahal izateko.
- Geroago… Zerga datuak kontsultatu ahal izango dira, bai enpresek aitortutakoak eta egotzitakoak (BIH sistemari heldutako bezeroek eta hornitzaileek egotzitakoak).
- Itzulketak egiteko epeak laburtzea, BFAk eragiketei buruzko informazio gehiago daukalako, ia-ia unean unekoa.

  Egiaztapen epeak laburtzea, aurreko arrazoi berberengatik.

6787 **1.15. Noiz hasiko da aplikatzen BIH?**

Sistema berria 2018ko urtarrilaren 1ean abiatuko da, eta prest izango da nahitaez erabili behar duten subjektu pasiboentzat zein beren borondatez erabiltzea hautatzen dutenentzat.

6800 **1.16. Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dauden zergapekoek 340 eredua aurkeztu behar dute?**

Ez, 340 eredua aurkeztu beharra kentzen da.

**6801 1.17. Zer kasutan aurkeztu behar dizkiote fakturazio erregistroak BFAri BIH nahitaez erabili behar dutenek?**

Ikuskatzeko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak daukan zergadunek aurkeztu behar dizkiote fakturazio erregistroak zerga administrazio horri.

BFAk honako kasu hauetan dauka ikuskatzeko eskumena:

1) Subjektu pasiboak Bizkaian dauka zerga egoitza eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena ez da 10 milioi €-tik gorakoa izan.

2) Subjektu pasiboak Bizkaian dauka zerga egoitza eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 milioi €-tik gorakoa izan da, betiere, lurralde erkidean egindako eragiketen bolumena % 75etik beherakoa izan bada.

3) Subjektu pasiboak Araba edo Gipuzkoan dauka zerga egoitza, betiere aurreko urteko eragiketen bolumena10 milioi €-tik gorakoa izan bada, ekitaldi horretan egindako eragiketen bolumenaren % 75 baino gehiago lurralde erkidean egin ez badu eta, ekitaldi horretan, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guzti-guztiak Bizkaian egin baditu edo, bestela, Bizkaian eta zerga egoitza ez daukan beste lurralde historiko batean eginez gero, eragiketen bolumenik handiena Bizkaiko lurraldean egin baditu.

4) Subjektu pasiboak lurralde erkidean dauka zerga egoitza, baldin eta aurreko urteko eragiketen bolumena10 milioi €-tik gorakoa izan bada, betiere Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketen bolumena % 75ekoa edo handik gorakoa izan bada (edo % 100ekoa, Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta dauden entitateentzat), eta EAEn egindako eragiketa gehienak Bizkaiko lurraldean egin baditu.

**6802 1.18. Zer eragin dauka BIH sistemak zerga eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen duten enpresetan?**

Orain arte bezala jarraituko dute: BEZaren aitorpenak eragiketak egiten dituzten lurraldeetako administrazioei aurkeztu beharko dizkiete (kasuan kasuko ereduak erabiliz eta ezarritako epealdien barruan).

Hala ere, BIH sistemako informazioa BEZaren ikuskapenerako eskumena daukan zerga administrazioari soilik aurkeztu beharko diote.

**6809 1.19. Zer arautan arautuko da BIH?**

Kasu honi dagokionez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiari (1624/1992 Errege Dekretua) edo fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiari (4/2013 Foru Dekretua) eragiten dieten arautze aldaketak 82/2017 Foru Dekretuan argitaratu dira. 82/2017 Foru Dekretu honen bidez tributuen arloko zenbait erregelamendu aldatzen dira informazioa berehala emateko sistema txertatzeko Balio Erantsiaren gaineko Zergan.

Hornitu beharreko informazioari dagozkion erregistro eremuak 2232/2017 Foru Aginduak onartu ditu. 2232/2017 Foru Aginduak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen normatibo eta teknikoak arautzen ditu.

**7944 1.20. Noiz bidali behar dira fakturazio erregistroak AFAra?**

**A) Jaulkitako fakturak**

Egutegiko lau eguneko epean, faktura egiten denetik, honako kasu honetan izan ezik: faktura jasotzaileak edo hirugarren batek egiten badu, epealdia egutegiko zortzi egunekoa izango da. Nolanahi ere, erregistratu beharreko eragiketari dagokion zerga sortuko litzatekeen hila amaitu eta hurrengoaren hamaseigarrena baino lehen eman beharko da informazio hori. Hala eta guztiz ere, faktura egin behar bada ere, zergaren eraginpeko eragiketak direnean, azken epea eragiketa egin deneko dataren arabera zehaztuko da. Epemuga faktura egiteko epealdiaren amaierarekin bat dator, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 11. artikuluak xedatutakoari jarraiki. Bada, enpresabururen batek sortzapenaren hurrengo hilaren hamabosgarren egunean ematen badu, fakturazio erregistroak egun horretan bertan bidali beharko ditu BIHren bidez (Europako Erkidegoaren barruko bidalketak izan ezean).
*1. adibidea. A enpresaburuak beste enpresaburu bati egin dio zerbitzua 2019ko abuztuaren 2an, eta eragiketari dagokion faktura egun horretan bertan egin du. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea abuztuaren 8an amaituko da.*

*2. adibidea. A enpresaburuak beste enpresaburu bati egin dio zerbitzua 2019ko irailaren 3an, eta eragiketari dagokion faktura 2019ko urriaren 11n egin du (faktura bidaltzeko epea urriaren 15ean amaituko da). Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea urriaren 15ean amaituko da (horixe da epemuga).*

*3. adibidea. Enpresaburu batek Europako Erkidegoaren barruko ematea egin dio Frantziako bezero bati. Ondasunen garraioa 2019ko urriaren 19an hasi da eta faktura 2019ko azaroaren 15ean egin*

*da (faktura egiteko azken egunean,* fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) *11.2 artikuluak ezarritakoari jarraiki, eta horixe da eragiketaren sortzapenaren data). Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea azaroaren 21ean amaituko da.*

**B) Jasotako fakturak**

Egutegiko lau eguneko epean, faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, eta nahitaez eragiketak sartzen diren likidazioaren aldia amaitu ondoko hilaren 16a baino lehen (jasandako BEZa kentzen den aldia).
Ulertu behar da fakturaren kontabilitate erregistroa kontabilitate sisteman jasotzen den datan gertatzen dela, kontabilitateko idazpenean jasotako data zein den.

*4. adibidea. Faktura bat 2019ko uztailaren 9an jaso duen enpresaburu batek faktura erregistratu eta jasandako zenbatekoa uztaileko 303 ereduan kendu nahi du. Horretarako, abuztuaren 13an egingo du fakturaren kontabilitate erregistroa eta data horretan sartuko du sisteman. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko azken eguna 2019ko abuztuaren 16a izango da (horixe da epemuga).*

*5. adibidea. Faktura bat 2019ko abuztuaren 9an jaso duen enpresaburu batek fakturaren kontabilitate erregistroa egin eta urriaren 13an bidali du sistemaren bidez. Faktura horren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea hau izango da:*
*a) Urriaren 15a, faktura iraileko 303 ereduan kentzen badu (horixe da epemuga).*
*b) Urriaren 17a, faktura urriko 303 ereduan kentzen badu (horixe da epemuga).*

Aurreko adibideak aintzat hartuta, faktura bat kendu ahal izango da faktura jaso eta horren idazpena egiten denean jasotako fakturen erregistro liburuan, betiere hala egiten bada dagokion 303 eredua aurkezteko epea amaitu baino lehen. Hala eta guztiz ere, erregistroak BIH sistemaren bidez bidaltzeko epemuga aintzat hartu behar da, hots, kenkaria egiten deneko hilaren hurrengoaren hamabosgarren eguna.

*6. adibidea. Enpresaburu batek kontabilitatean erregistratu du jasotako faktura bat, baina ez daki jasotze data zein izan den. Sisteman jaso duen data 2019ko urriaren13koa da. Faktura hori BIHren bidez bidaltzeko epealdia urriaren 17koa amaituko da. Hala, faktura kendu ahal izango da urriko hilabeteari dagokion likidazio alditik aurrera.*

Inportazio eragiketak egiten direnean, egutegiko lau egunak zenbatzen asi beharko dira Aduanak egindako BEZ zergaren likidazioa jasotzen duen agiria kontabilitatean erregistratzen denetik, betiere eragiketa horiek jaso direneko aitorpenari dagokion epealdiaren amaiaren hurrengo hilaren hamaseigarren eguna baino lehen (epe horretan kentzen baita jasandako BEZ zerga).

*7. adibidea. Enpresaburu batek era askean izapidetutako salgaiak inportatu ditu 2019ko urriaren 25ean. Data horretan bertan, administrazio dokumentu bakarra onartu eta aduanak BEZ zerga likidatu du. Enpresaburuak jasandako zenbatekoa kontsignatu eta kendu du urriko 303 ereduan, eta kontabilitatean jaso du 2019ko azaroaren 9an. Administrazio dokumentua bakarraren erregistroa BIHren bidez bidaltzeko epea azaroaren 14an amaituko da.*

**C) Europar Erkidegoaren barruko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuk**
Egutegiko lau eguneko epean, ondasunen bidalketa edo garraioa hasten denetik edo, bestela, haiek jasotzen direnetik.

**D) Inbertsio ondasunei buruzko informazioa**
Urteko azken likidazioa aurkezteko epealdiaren barruan (urtarrilaren 31ra arte).

**E) Faktura zuzentzaileak**
Egutegiko lau eguneko epean, ondasunak bidaltzen direnetik edo, faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, hurrenez hurren.
Faktura zuzentzaileak hasieran kendutako zenbatekoa baino handiagoa ekarriz gero, BEZ zergaren 1994/7 Foru Arauaren 114.Bi.1 artikuluak ezarritakoari jarraiki, epealdia jasotako fakturena izango da.

**AINTZAT HARTZEKO EPEALDIAK, BIH SISTEMARI HELTZEKO AUKERA URTARRILAREN 1a EZ DEN DATA BATEAN EGITEN DENEAN:** Urtarrilaren 1en eta BIH sistemari heltzeko aukera egin den arteko epeari dagokion informazioa bidaltzeko epealdia heltzeko aukera egin den datatik ekitaldiaren amaiera artekoa izango da.

**EPEAK ZENBATZEA:** Kontuan hartu behar da aurreko ataletan aipatu den egutegiko lau eguneko edo zortzi eguneko epea zenbatzerakoan, larunbatak, igandeak eta Bizkaiko jaiegunak bazter utzi behar direla.

Hala, hurrengo hilaren hamabosgarren eguna, hau da, epemuga, larunbat, igandea edo Bizkaiko jaieguna bada, epemuga hurrengo egun baliodun izango da.

## 2. ERREGISTROA GALDERA OROKORRAK

### 6803 2.1. Nola bidal daitezke era elektronikoan fakturetako datuak Bizkaiko Foru Aldundira?

Bi modu daude datuak era elektronikoan bidaltzeko:

- Bide telematikoz, XML mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bidez; horiei esker, informazioa ia-ia bertatik bertara eman ahal izango da.
- Gainera, web formulario baten bidez ere bidali ahal izango dira honako kasu hauetan: subjektu pasiboak eragiketa gutxi egiten dituenean edo faktura jakin batzuen erregistroak bereiz bidali nahi direnean.

**6804 2.2. BIH erabiltzen duten subjektu pasiboek IGIC edo IPSI zergen eraginpean dauden eragiketei buruzko informazioa eman behar dute?**

Kasu honetan bakarrik: IGIC edo IPSIren eraginpeko eragiketa BEZaren eraginpean ez badago, kokalekuaren arauen arabera. Eragiketa Kanarietan, Ceutan edo Melillan dagoen establezimendu iraunkor baten bidez eginez gero, ez da egongo beraren berri eman beharrik.

**7945 2.3. Nola konpon daitezke erregistroko akatsak?**

Faktura zuzena izan arren, erregistro liburuan egindako idazpena okerra bada, baina bidaltzailearen identifikazio datuei, faktura zenbakiari eta fakturaren datari eragiten ez badie (hala balitz, erregistroa bertan behera utzi beharko litzateke – Maiz egiten diren galderetan, ikusi 2.8), erregistro berria bidali beharko da, jatorrizko fakturaren zenbakia adierazita, A1 komunikazio-eredua erabiliz: “Faktura/erregistroen aldaketa (erregistroko akatsak)”.

Erregistro berria hurrengo hilaren hamaseigarren eguna baino lehen aldatu beharko da, zergapekoa akatsaz jabetzen den epealdiaren amaieran.

**7946 2.4. Nola erregistratu behar ditu faktura egileak faktura zuzentzaileak?**

Fakturetan akatsik egiten denean, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 6. edo 7. artikuluetan ezarritako betekizunen bat betetzen ez denean, Zuzenbidean funtsatutako akatsen bat egiten denean, jasanarazitako zenbatekoa oker kalkulatu denean edo zerga oinarria aldaraztea dakarten inguruabarren bat gertatzen denean (BEZ zergaren 1994/7 Foru Arauaren 80. artikulua), faktura zuzentzailea bidali beharko da. Faktura horri doakion informazioa “A0” komunikazio eredua erabiliz igorriko da eta “R1”, “R2”, “R3” edo “R4” kodeak adieraziko dira, zuzenketaren arrazoia zein den (Zuzenbidean oinarritutako akatsak eta BEZ zergaren 1994/7 Foru Arauaren 80.Bat, Bi eta Sei artikuluak jasotako zioak, hartzekodunen konkurtsoa, zor kobraezinak eta gainerako zioak).
Era berean, faktura zuzentzailearen mota zein den adierazi beharko da, “S – ordezpenezko faktura” edo “I - aldeen ziozko faktura”.

Zuzenketa faktura erraztu baten gainean egiten denean, bidali beharreko informazioan, “R5” gakoa edo kodea adierazi beharko da (faktura zuzentzaile erraztua).

**BERRIKUSIA 7947 2.5. Nola erregistratu behar ditu bidaltzaileak ordezpenezko faktura zuzentzaileak, “S” kodekoak, alegia?**

Halako fakturen informazioa honela bidaliko da: “Komunikazio mota: A0”, eta faktura mota adierazteko, “R1”, “R2”, “R3” eta “R4” gakoak erabiliko dira. Faktura erraztuak aldatu behar badira, “R5” gakoa erabiliko da.

Zuzenketa “ordezpenez” egiten denean, egindako zuzenketaren berri eman behar da; era berean, zuzenketaren zenbatekoa ere adierazi beharko da. Informazioa honela bidali ahalko da:

- **1. aukera:** Erregistro berri baten gaineko informazioa bidalita, honela: zenbateko zuzenak adieraziko dira honako eremu hauek zuzenduta: “zerga oinarria”, “kuota” eta, hala badagokio, “errekargua”. Era berean, zuzendutako zenbatekoen berri eman behar da, jatorrizko fakturaren aldean, ondoko eremuak zuzenduta: “zuzendutako oinarria”, “zuzendutako kuota” eta, hala badagokio, “zuzendutako errekargua”.
- **2. aukera:** Erregistro berri baten gaineko informazioa bidalita, honela: zenbateko zuzenak adieraziko dira, ondoko eremuak zuzenduta: “zerga oinarria”, “kuota” eta, hala badagokio, “errekargua”. Halaber, beste erregistro bat bidaliko da zuzendutako zenbatekoen berri emateko. Azken erregistro horretan (oro har, ordainketa bat), ez da beharrezkoa eragiketa-data adieraztea, baldin eta zuzenketa jasotzen duen likidazio-aldia zuzenketaren arrazoia ikusten den hori bada (ohiko aldia).

Zuzendutako fakturen zerrenda identifikatzea hautazkoa izango da.

### 1. adibidea: Zerga-oinarrriaren murrizketa

Zerga-oinarriaren 1. faktura 1.000€ eta 210€ kuota, eragiketa-data 2021/05/01 eta jaulkitze-data 2021/05/07, likidazio-aldian erregistratua 2021/05.

Faktura hori zuzendu egingo da 10/2021 aldian, eta zuzenketa zerga-oinarria 200 euro murriztean datza.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: 800 euroko zerga oinarria eta 168 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da 1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta 210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: Rx
- Zuzenketa mota: S
- Eragiketaren data: 2021/05/01
- Bidaltze-data: 2021/10/18
- Likidazio-aldia: 2021/10
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (1.000 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 968 eurokoa.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 800 eurokoa , jasanarazitako kuota: 168 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea -1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta 800 €-ko zerga oinarria duen faktura zuzentzaile bat.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: F1
- Eragiketaren data: bete gabe utzi
- Bidaltze-data: 2021/10/18
- Likidazio-aldia: 2021/10
- BEZ zergaren banakapena: zuzendutako zenbatekoa adieraziko da zerga oinarria: (-1.000 €), jasanarazitako kuota (-210 €).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: Rx
- Zuzenketa mota: S
- Eragiketaren data: 2021/05/01
- Bidaltze-data: 2021/10/18
- Likidazio-aldia: 2021/10
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (0 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (0 €-koa).
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 968 €.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 800 €, jasanarazitako kuota: 168 €.

### 2. adibidea: Zerga-oinarriaren gehikuntza

1.000 €-ko zerga-oinarria eta 210 €-ko kuota dituen 2. faktura zuzendu egingo da. Zuzenketa zerga-oinarria 200 € igartzean datza.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: 1.200 euroko zerga oinarria eta 252 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da 1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta 210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: Rx
- Zuzenketa mota: S

- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (1.000 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 1.452 €
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 1.200 € , jasanarazitako kuota: 252 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea -1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta 1.200 €-ko zerga oinarria duen faktura zuzentzaile bat.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Tipo Comunicación: A0
- Tipo Factura: F1
- Desglose IVA: se indicará el importe que se rectifica (base imponible: (-1.000), cuota repercutida (-210).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: Rx
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (0 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (0 €-koa).
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 1.452 €.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 1.200 €, jasanarazitako kuota: 252 €.

### 3. adibidea: Zerga-oinarria murriztea, ez ordaintzeagatik

1.000 €-ko zerga-oinarria eta 210 €-ko kuota dituen 3. faktura zuzendu egingo da, ez ordaintzeagatik, eta jasanarazitako kuota ososa kenduko da.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: 1.000 euroko zerga oinarria eta 0 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da 1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta 210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R2/R3
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (1.000 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 1.000 €.

- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 1.000 € , jasanarazitako kuota: 0 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea -1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta -210 €-ko kuota eta zuzenketa-faktura bat, non adieraziko da zerga-oinarria 1.000 €-koa dela eta kuota 0 €-koa.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: F1
- BEZ zergaren banakapena: zuzendutako zenbatekoa adieraziko da zerga oinarria: (-1.000 €), jasanarazitako kuota (-210 €).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R2/R3
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, "zuzendutako oinarria" (0 €-koa) eta "zuzendutako kuota" (0 €-koa).
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 1.000 €.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 1.000 €, jasanarazitako kuota: 0 €.

### 4. adibidea: Aurretiko faktura zuzentzailea: zerga-oinarria handitzea.

Zerga-oinarriaren 1 bis faktura zuzentzailea -1.000 €-koa eta kuota -210 €-koa zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 200 € igotzean datza; izan ere, 1 bis zenbakiko zuzenketa-faktura zerga-oinarriaren -800 € eta kuota -168 € zenbatekoan jaulki behar zen.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: -800 euroko zerga oinarria eta -168 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da -1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta -210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R4
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, "zuzendutako oinarria" (-1.000 €-koa) eta "zuzendutako kuota" (-210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: -968 eurokoa.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: -800 € , jasanarazitako kuota: 168 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea 1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta -800 €-ko zerga oinarria duen faktura zuzentzaile bat.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: F1
- BEZ zergaren banakapena: zuzendutako zenbatekoa adieraziko da zerga oinarria: (1.000 €), jasanarazitako kuota (210 €).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R4
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, "zuzendutako oinarria" (0 €-koa) eta "zuzendutako kuota" (0 €-koa).
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: -968 €.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: -800 €, jasanarazitako kuota: -168 €.

**5. adibidea: Aurretiko faktura zuzentzailea zuzentzea: zerga-oinarria murriztea.**

Zerga-oinarriaren 2 bis faktura zuzentzailea -1.000 €-koa eta kuota -210 €-koa zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 200 € murriztean datza; izan ere, 2 bis zenbakiko zuzenketa-faktura zerga-oinarriaren -1.200 € eta kuota -252 € zenbatekoan jaulki behar zen.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: -1.200 euroko zerga oinarria eta -252 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da -1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta -210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R4
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, "zuzendutako oinarria" (-1.000 €-koa) eta "zuzendutako kuota" (-210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: -1.452 eurokoa.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: -1.200 € , jasanarazitako kuota: -252 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea 1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta -1.200 €-ko zerga oinarria duen faktura zuzentzaile bat.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: F1
- BEZ zergaren banakapena: zuzendutako zenbatekoa adieraziko da zerga oinarria: (1.000 €), jasanarazitako kuota (210 €).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Tipo Comunicación: A0
- Tipo Factura: R4
- Tipo Rectificativa: S
- Importe Rectificación: se informará de dos campos adicionales con “la base rectificada” (0€) y la “cuota rectificada” (0 €).
- Importe total: se indicará el importe final válido -1.452 €.
- Desglose IVA: base imponible: -1.200 €, cuota repercutida -252 €.

**6. adibidea: Zenbateko negatiboko aurretiazko faktura zuzentzailea zuzentzea: zerga-oinarria zenbateko positiboraino handitzea.**

Zerga-oinarriaren 3 bis faktura zuzentzailea -1.000 €-koa eta kuota -210 €-koa zuzendu egingo dira. Zuzenketa zerga-oinarria 1.500 € handitzean datza; izan ere, 3 bis zenbakiko zuzenketa-faktura zerga-oinarriaren 500 € eta kuota 105 € zenbatekoan jaulki behar zen.

**1. aukera:** Ordezpenezko zuzenketa edo aldaketa eginez gero, ondoko faktura zuzentzailea egingo da: 500 euroko zerga oinarria eta 105 euroko kuota. Faktura horretan, adierazi beharko da -1.000 euroko zerga oinarria zuzendu egin dela eta -210 euroko kuota zuzendu egin dela.

Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0
- Faktura mota: R4
- Zuzenketa mota: S
- Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarriren berri emango da, “zuzendutako oinarria” (-1.000 €-koa) eta “zuzendutako kuota” (-210 €-koa) jasota.
- Guztizko zenbatekoa: azken zenbateko zuzena adieraziko da: 605 eurokoa.
- BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: 500 € , jasanarazitako kuota: 105 €.

**2. aukera:** Ordezpenezko aldaketa berekin ekarriko luke faktura bat egitea 1.000 €-ko zerga-oinarria duena, eta 500 €-ko zerga oinarria duen faktura zuzentzaile bat.

Lehen fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Komunikazio mota: A0

- Faktura mota: F1
- BEZ zergaren banakapena: zuzendutako zenbatekoa adieraziko da zerga oinarria: (1.000 €), jasanarazitako kuota (210 €).

Bigarren fakturan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:

- Tipo Comunicación: A0
- Tipo Factura: R4
- Tipo Rectificativa: S
- Importe Rectificación: se informará de dos campos adicionales con "la base rectificada" (0€) y la "cuota rectificada" (0 €).
- Importe total: se indicará el importe final válido 605 €.
- Desglose IVA: base imponible: 500 €, cuota repercutida 105 €.

**7948 2.6. Nola erregistratu behar ditu faktura egileak aldeen ziozko faktura zuzentzaileak, "I" kodekoak, alegia?**

Fakturaren informazioa honela bidaliko da: "Komunikazio mota: A0" eta faktura mota: "R1", "R2", "R3" edo "R4" gakoak. Faktura erraztuak aldatu behar badira, "R5" gakoa erabiliko da.

Zuzenketa "aldeen ziozkoa" bada, zuzenketaren zenbatekoaren gaineko informazioa eman beharko da zuzenean.

Horretarako, faktura zuzentzailearen berri eman beharko da erregistro bakarrean, "I" gakoa erabiliz. Kasu horretan, ez dira "Zuzendutako oinarria" eta "Zuzendutako kuota" izeneko eremu osagarriak bete behar.
Zuzendutako fakturen zerrenda identifikatzea hautazkoa izango da.

*Adibidea: 1.000 euroko zerga oinarria eta 210 euroko kuota dauzkan 1. zenbakidun faktura zuzendu egin behar da.*
*Aldaketen ziozko zuzenketa eginez gero, ondoko zerga oinarria daukan faktura egin beharko da: - 200 €.*
*Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharreko eremuak eta adierazi beharreko gakoak ondokoak dira:*
*Komunikazio mota: A0*
*Faktura mota: Rx*
*Zuzenketa mota: D*
*Guztizko zenbatekoa: Zuzenketaren guztizko zenbatekoa adieraziko da: -242.*
*BEZ zergaren banakapena: zerga oinarria: -200, jasanarazitako kuota: -42.*

**7949 2.7. Zuzenketa agiri bakarra erabiliz, hainbat zuzentzen badira, nola identifikatu behar ditu faktura egileak zuzendutako fakturak?**

Zuzendutako fakturak identifikatzea hautazkoa da.
Dena dela, identifikatzen badira, faktura zenbakiaren eta fakturaren dataren berri eman beharko da. Guzti-guztiak identifikatu ahalko dira; muga bakarra XML fitxategiaren beraren tamaina izango da.

**7950 2.8. Nola aldatzen edo baliogabetzen da oker egindako faktura bat edo identifikazio datuetan akatsak dituena (adb. Egin ez den eragiketa bati dagokiona)?**

Aldez aurretik bidalitako faktura, bidezkoa ez dena, bertan behera utziko da ("fakturaren baja" deritzon mezua); horretarako, jatorrizko fakturaren zenbakia identifikatu beharko da.
Faktura berria eta zuzena egin behar izatera, faktura horren alta egin beharko da (A0) eta beste faktura zenbaki bat edo beste faktura data bat eman beharko zaio.

Faktura zuzentzailea egiten denean, sistemak hasierako faktura akastuna onartzen ez duela, faktura egileak ordezpenezko faktura zuzentzailea erregistratu beharko du, "S" gakoduna, eta "0" adierazi beharko du "zuzendutako oinarria" eta "zuzendutako kuota" eremu osagarrietan.

Faktura bat nahitaez zuzentzeko zioak gertatzen ez direnean (esate baterako, inoiz gauzatu ez den eragiketa baten ziozko faktura oker egin denean), kasua ez da aurrekoa; izan ere, kasu honetan, ez da oker egindako faktura zuzendu behar, ezpada, BALIOGABETU eta erregistroa bertan behera utzi behar da.

**7951 2.9. Noiz bete behar da "Eragiketa data" eremua?**

"Eragiketa data" deritzon eremua Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharko da eragiketa gauzatu den data eta faktura egin den data desberdinak direnean.

"Eragiketa data" deritzon eremua Jaulkitako fakturen erregistro liburuan bete beharko da eragiketa gauzatu den data eta faktura egin den data desberdinak direnean eta, gainera, horrela jasota dagoenean.

*Adibidea: A enpresak beste enpresa bati salgaiak saldu dizkio 2018ko uztailaren 3an, eta eragiketa hori faktura bidez dokumentatu du 2018ko abuztuaren 1ean. Noiz eman behar dira datuak BIH sistemaren bidez? Berariazko eremuren bat bete behar da?*

*Faktura egiten denetik hurrengo lau eguneko epearen barruan (abuztuaren 7ra arte) eman behar da datuen berri. "Faktura data" (2018ko abuztuaren 1a) eta "Eragiketa data" (2018ko uztailaren 3a) eremuak bete behar dira.*

**7952 2.10. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean?**

Zuzentzen ari den jatorrizko fakturari dagokion eragiketa egin deneko data.

**7953 2.11. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean hainbat faktura batera zuzentzen badira zuzentze agiri bakarra erabiliz?**

Azken faktura zuzendua (data berriena duena) dokumentatzen duen eragiketa egin deneko azken eguna jasoko da.

**7954 2.12. "Eragiketaren deskribapena" izeneko eremua gako estandarrak erabiliz bete behar da?**

Ez. Eduki libre edo irekiko eremua da, eta 500 karaktereraino idatzi ahal dira bertan.

**7955 2.13. Noiz bete behar da "Kontrako alderdia" eta "IDfaktura" blokearen barruan ageri den "BesteID" eremua?**

"Eragiketaren kontrako alderdiak (bezeroa/hornitzailea" edo fakturaren egileak Espainian esleitutako IFKrik ez daukanean. Besteak beste, hori gertatzen da atzerriko hornitzaileak edo bezeroak ditugunean.

Bizilekuko herrialdea identifikatzeko gakoak eta horien balioak ondokoak dira:
02: IFK-BEZ
03: Pasaportea
04: Bizilekua duen herrialde edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala.
05: Bizileku ziurtagiria
06: Beste frogagiriren bat.

Pertsona fisikoak diren bezero nazionalei dagokienez, hartzailearen IKF zuzena bada, baina Zerga Administrazioko Estatu Agentzian erroldaturik ez dagoenean, egindako fakturen erregistroa 07-Erroldatu gabe identifikazio gakoa erabil daiteke; hala ere, erregistroa akatsak dituela onartuko da eta informazio egokia jasotzean zuzendu beharko da.

**7956 2.14. Noiz bete behar da "Kontrako alderdia" izeneko blokearen barruan ageri den "Herrialdearen kodea" eremua?**

"Eragiketaren kontrako alderdia (bezeroa/hornitzailea)" delakoaren helbidea Europako Erkidegoz kanpoko herrialde batekoa denean edo, Europa Erkidegoaren barruko herrialdea izanik, deklaratuak Europa Erkidegoaren barruko Operadore Zenbakia ez daukanean (hala gertatzen da erkidegoko azken kontsumitzaile batzuekin). "Identifikazio motak bizilekuko herrialdean" eremuaren barruan ageri den 2. gakoa (IFK-BEZ) markatzen bada, eremu hori ez da bete beharko.

**7957 2.15. Nola erregistratzen da zenbait zerga tasa dauzkan faktura (egindakoa nahiz jasotakoa) bat?**

Faktura horren berri emango da erregistro bakarrean eta ondokoei dagokien informazioa banakatuko da: zerga tasa, zerga oinarria, jasanarazitako kuota edo jasandakoa, baliokidetasun errekarguaren tasa eta baliokidetasun errekarguaren kuota, tasen edo errekarguen arabera.

**7958 2.16. BEZ zergaren arloan, Entitate Taldeen Araubide Bereziko entitateak direnean, nork eman behar ditu fakturazio erregistroak era elektronikoan?**

Taldeko kide den entitate bakoitzak.

**BERRIA – 8272 2.17 Egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuetan, "Araubide berezia edo eragina" eremuan zer kasutan erabili behar da 06 gakoa ("BEZaren entitate-taldeen araubide berezia (maila aurreratua)"?**

Taldeko enpresen arteko eragiketetan, baldin eta 7/1994 Foru Arauaren 163 sexies.bost artikuluan ezarritako modalitatea hautatu badu. Kasu horietan, "Kostuko zerga-oinarria" eremua bete behar da.

"Zerga-oinarria" eremuan 7/1994 Foru Arauaren 78. eta 79. artikuluetan aipatzen den zenbatekoa ezarri behar da. Kontuan hartu behar da "jasanarazitako kuota" eremuan kostuko zerga-oinarria kasuan kasuko zerga-tasaz biderkatzearen emaitza ipini behar dela.

Gako hau ez da erabili behar autokontsumoetan, Batasunaren barruko eragiketa batzuetan (transfer) eta lotutako eragiketetan, pareko ondasunik edo zerbitzurik ez dagoenean. Kasu horietan, zerga-oinarria adierazi behar da "zerga-oinarria" eremuan.

**8272 2.17 Egindako eta jasotako fakturen erregistro-liburuetan, "Araubide berezia edo eragina" eremuan zer kasutan erabili behar da 06 gakoa ("BEZaren entitate-taldeen araubide berezia (maila aurreratua)"?**

Taldeko enpresen arteko eragiketetan, baldin eta 7/1994 Foru Arauaren 163 sexies.bost artikuluan ezarritako modalitatea hautatu badu. Kasu horietan, "Kostuko zerga-oinarria" eremua bete behar da.

“Zerga-oinarria” eremuan 7/1994 Foru Arauaren 78. eta 79. artikuluetan aipatzen den zenbatekoa ezarri behar da. Kontuan hartu behar da “jasanarazitako kuota” eremuan kostuko zerga-oinarria kasuan kasuko zerga-tasaz biderkatzearen emaitza ipini behar dela.

Gako hau ez da erabili behar autokontsumoetan, Batasunaren barruko eragiketa batzuetan (transfer) eta lotutako eragiketetan, pareko ondasunik edo zerbitzurik ez dagoenean. Kasu horietan, zerga-oinarria adierazi behar da “zerga-oinarria” eremuan.

**BERRIKUSIA 7959 2.18. Bada berezitasunik Erabilitako Ondasunen Araubide Bereziaren eraginpeko eragiketak erregistratzerakoan?**

“Araubide bereziaren gakoa edo Transzendentzia” izeneko eremuan, 03 balioa adieraziko da.

Eragiketa mota horiek dokumentatzen dituzten fakturek ez dute jasanarazitako kuota era bereizian jasotzen.

Ondorioz, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan, salbuetsita ez dauden eraginpeko eraiketak direnean, eragiketa “S1” gakoa erabiliz sailkatuko da eta “fakturaren guztizko zenbatekoa" adierazi beharko da, zerga oinarria zero dela eta tasaren nahiz kuotaren eremuak hutsik utziko direla. Bestela, eragiketaren zerga-oinarria erregistratu daiteke; hori eginez gero, tasa eta kuota zehaztu behar dira. Azken kasu horretan, 2023ko uztailaren 1etik aurrera, erosketa-prezioan izandako aldaketen ondoriozko mozkin-marjineko doikuntzak erregistrtuko dira AJ faktura-motaren gakoaren bidez.

"AJ" gakoa jaulkitako fakturen erregistro-liburuko "Erregimen berezia edo garrantzia" kodearekin erregistratuko da, 03 balioarekin. Faktura mailan banatuko da, eragiketa salbuetsi gabeko subjektu gisa kalifikatuko da eta "S1" gakoa erabiliko da.

Faktura-zenbaki gisa, saltzaileak esleitutako zenbaki bat adieraziko da, doikuntzaren identifikazio unibokoa ahalbidetzen duena, eta jaulkipen-data gisa, doikuntza erregistratzen den data. Jaulkitako fakturen zenbaketan jauzirik ez eragiteko, doikuntza serie berezi bat erabiliz erregistratuko da.

Kontuan izan behar da zerga-oinarria, tasa eta jasanarazitako kuota eremuak nahitaezkoak direla. Jasanarazitako kuotaren eremuak tasaren zerga-oinarriaren berdina izan behar du. "Guztizko zenbatekoa" eremua aukerakoa da.

Ez da daturik jasoko kontraparteari dagokion blokean.

Doikuntza erregistratzeko epea erregularizazioa eragiten duen inguruabarra antzeman eta hurrengo hilaren 15era artekoa izango da.

Jasotako Fakturen Erregistro Liburuan, zero adieraziko da zerga oinarrian eta kontraprestazioaren guztizkoa fakturaren guztizko zenbatekoa izango da. Ez da zenbatekorik nahitaez adierazi behar “Zerga tasa" eta “Jasandako kuota” eremuetan; “Kuota kengarria” izeneko eremuan, berriz, zero adieraziko da.

Enpresaburuak Erabilitako Ondasunen Araubide Bereziaren arabera adierazi diren norbanakoei egindako erosketen egiaztagiriak, norbanakoek sinatutakoak, F6 gakoa erabiliz bidali ahalko dira: “Kontabilitateko egiaztagiriak”.

**7960 2.19. SII erabiltzen duten subjektu pasiboek IGIC edo IPSI zergen eraginpean dauden eragiketei buruzko informazioa eman behar dute?**

Kasu honetan bakarrik: IGIC edo IPSIren eraginpeko eragiketa BEZaren eraginpean ez badago, kokalekuaren arauen arabera. Eragiketa Kanarietan, Ceutan edo Melillan dagoen establezimendu iraunkor baten bidez eginez gero, ez da egongo beraren berri eman beharrik.

“Araubide Bereziaren gakoa edo Transzendentzia” izeneko eremuan, 08 balioa adieraziko da eta “lotu gabeko” eragiketatzat erregistratuko dira Lotu gabeko zenbatekoa, kokaleku arauen arabera deritzon eremuan, baina ez da zerga horiei (IGIC edo IPSI) dagokien datuen berririk eman behar, ez baitira BEZ zergaren eraginpeko eragiketak.

*1. adibidea. SII darabilen eta zerga egoitza Bizkaian daukan enpresaburu batek Zuzenbide zerbitzuak eman dizkio Kanarietan bizi den profesional bati. IGIC zergari lotutako zerbitzugintza da, eta horren gaineko informazioa eman beharko da SII sistemaren bidez.*

*2. adibidea. BIH darabilen eta zerga egoitza Bizkaian daukan enpresaburu batek salgaiak eskuratu ditu Kanarietan eta lurralde horretan saldu ditu. Kanarietan kokaturiko ondasunen ematea da, Zergaren Aplikazio Lurraldera ez baita eraman; beraz, IGIC zergaren eraginpekoa da eta horren berri eman beharko da BIH sistemaren bidez.*

Ez da 08 gakoa erabiliko ZALetik Kanariar uharte, Ceuta eta Melillara garraiatutako ondasunen emateak direnean edo, lurralde horietatik etorri eta ZALen eskuratutako ondasunak direnean. Halakoak esportaziotzat sailkatu behar dira (araubide bereziaren gakoa: 02) eta inportaziotzat, hurrenez hurren (faktura mota: F5).

 *Gogorarazi behar dugu, Espainian, zergaren aplikazio lurraldeak (ZAL) penintsula eta Balear uharteak aintzat hartzen dituela.*

**7961 2.20. Emandako edo hartutako dirulaguntzei buruzko informaziorik emango da SII sistemaren bidez?**

Ez.

**EGUNERATUA 8273 2.21 Aseguru-konpainiek emango dute aseguru-eragiketei buruzko informaziorik SII sistemaren bidez?**

Bai, honako kasu hauetan:

- Eragiketaren faktura egin behar denean (Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretua, 3.2 artikulua).
- Eragiketa Bizkaiko Foru Aldundiaren 205/2008 Foru Dekretuaren 44.1 artikuluan aipatzen direnetakoa denean (jasotako primen edo kontraprestazioen zenbatekoa edo ordaindutako kalte-ordainen edo prestazioen zenbatekoa) faktura egiteko betebeharrik ez dutenak. Informazio hau urtero eman behar da, hurrengo ekitaldiko urtarrileko lehen 30 egunetan. Pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketa guztien informazioa multzo batean bildu behar da.

Beste alde batetik, aseguru-entitateek jasotako fakturak bidaltzeko epealdia ohikoa izango da, **4 egun**, oro har.

**7962 2.22. BEZ zergari lotuta dauden higiezinen eskualdaketen zioz jasotako zenbatekoei buruzko informaziorik emango da SII sistemaren bidez?**

Bai, “BEZ zergari lotuta dauden higiezinen eskualdaketen zioz jasotako zenbatekoak” izeneko eremuan, Jaulkitako fakturen erregistro liburuan.

Informazio hori BEZ zergari lotutako higiezinen eskualdaketei dagokienez emango da, bai salbuetsita ez dauden eragiketei (sustatzaileak saldutakoak), bai salbuetsita ez dauden eragiketei (bigarren eta hurrengo emateak) dagokienez.

“Hartutako zenbatekoak” izango dira higiezinen eskualdaketei dagozkien sortutako zenbatekoak.

**7963 2.23. Negozioa garatzeko lokalaren errentamendu eragiketa nola erregistratu behar da?**

Jaulkitako faktura Araubide Bereziko “11" eta “12” gakoez erregistratuko du errentatzaileak, errentamenduak atxikipenik daukan kontuan hartuta eta “13" gakoaz fakturan bi errentamendu mota horiek jasotzen badira. Atxikipenik gabeko errentamendua izanez gero ("12" eta "13" gakoak), higiezinaren eta katastroko erreferentziari dagozkion eremuak ere bete beharko dira.

Errentariak, aldiz, araubide bereziko “12” gakoa erabiliz erregistratuko du jasotako faktura.

**7964 2.24. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari lotutako nekazaritza konpentsazioak ordaintzen dituzten eragiketei buruzko informazioa eman behar da?**

Bai, F6 faktura motaren gakoaren bidez. “Araubide bereziaren gakoa edo Transzendentzia” izeneko eremuan, 02 balioa adieraziko da.

**7965 2.25. Fakturen laburpena dakarten idazpenak erregistratu ahal dira BIH sistemaren bidez?**

Bai. Faktura motaren gisa, “F4” gakoa adieraziko da.

Faktura identifikatzen duen blokean (IDfaktura), lehen fakturaren eta azkenaren zenbakia eta seriea adieraziko dira.

**7966 2.26. Hainbat zerga tasa dituzten eragiketak jasotzen dituzten fakturen laburpenen idazpenak erregistratu daitezke?**

Bai. Erregistro bakarrean emango da informazio hori eta zerga tasa bakoitzari dagokion zerga oinarria eta zerga tasa guztiak banakatu egingo dira.

**7967 2.27. Nola erregistratuko du faktura egileak faktura erraztuen ordez egindako faktura bat (4/2013 Foru Dekretuaren 7.2 artikulua)?**

Halakoen berri “Faktura mota" izeneko blokean eman beharko da, “F3: fakturatutako eta aitortutako faktura erraztuen ordez jaulkitako faktura” gakoa erabiliz, eta “Ordeztuen datuak” izeneko eremuan, ordeztutako faktura erraztuak identifikatuko dira, zenbakia, seriea eta fakturaren data adierazita. Identifikazioa hautazkoa da.
“Ekitaldia” eta “Epealdia” deritzen eremuetan, jatorrizko faktura erraztuaren idazpena egin zeneko likidazio aldiari dagozkionak jaso beharko dira.

“F3” gakoak esan nahi du ez dela fakturak jasanarazitako BEZ zerga aintzat hartuko, jatorrizko faktura erraztuarekiko bikoiztasunak ekiditeko.

OHAR GARRANTZITSUA: Faktura erraztuaren ziozko ordainketa egiten bada (“F2” gakoa daukan erregistro negatiboa sortuta), horren ordez egiten den fakturaren berri eman beharko da “F1" Gakoa erabiliz.
Fakturaren jasotzaileari dagokionez, ikusi 4.3. galdera, maiz egiten direnekoetan.

**7968 2.28. Zer eragiketa data jaso behar da faktura zuzentzaile batean (4/2013 Foru Dekretuaren 13. artikulua, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudia)?**

Fakturen bildumak dokumentatzen dituen eragiketak egin direneko hilaren azken egunean jasoko da edo, fakturen bildumaren aldia hilabetea baino laburragoa bada, aldi horretako eragiketak egiten diren azken egunean.

Adibidea: Faktura bat egin da 2017ko uztailaren 25ean, 2017ko uztailaren 1ean, 10ean, 15ean eta 20an egindako ondasunen emateak dokumentatzeko; eragiketaren data uztailaren 20a da.

**8274 2.29 Fakturetan, zerga-oinarria, zergaren kuota eta fakturaren guztirako zenbatekoa dibisetan eman daitezke?**

Ez. Kontrabalioa zehaztu behar da, euroetan, eragiketaren sortzapen-egunean indarrean dagoen Espainiako Bankuak ezarritako kanbio-tasa saltzailea aplikatuta (7/1994 Foru Araua, azaroaren 9koa, balio erantsiaren zergarena; 79. artikulua).

**7969 2.30. Finantza eragiketei buruzko informazioa eman behar da SIIren bidez?**

Halakoetan, bakarrik emango da informazioa faktura egiteko betebeharrari lotutako eragiketa denean, fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 3.2. artikuluari jarraiki edo atzerriko zerbitzu emaileak egoitza daukan herrialdeko fakturazio araudiari jarraiki.

**7970 2.31. Fakturan adierazitako atxikipenen zenbatekoaren berri eman behar da BIHren bidez?**

Ez.

**8275 2.32 SII sistema erabili behar dutenek establezimendu iraunkorren bidez egiten dituzten eragiketen berri eman behar dute?**

Jarduera egiten duten establezimendu iraunkorren egiten edo jasotzen diren fakturak ez dira erregistratu behar SII sistemaren bidez.

**7971 2.33. Kasuren batean, 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen jaulkitako fakturak erregistratu behar dira?**

2018ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulkitako fakturak BIHn erregistratu beharko dira, betiere data horretatik aurrera eragin fiskala badute.

Esate baterako, kasu hauek aipa daitezke:

- Kutxako irizpidearen araubide bereziari lotutako fakturak, urtarrilaren 1etik aurrera ordaintzen edo kobratzen badira.

- Bidaiarien araubideko BEZaren itzulketaren ondorioz, erregistroa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera (A4) zuzendu beharreko fakturak.

Esandakoa aplikagarria da BIHri 2018ko urtarrilaren 1a ez den uneren batean heldu dioten subjektu pasiboentzat, sistema erabiltzen hasi aurretik jaulkitako edo jasotako fakturei dagokienez.

**7972 2.34. Erregistratu behar dira BIHren bidez 2018ko urtarrilaren 1etik atzeragoko ekitaldietako erregistro liburuei dagozkien jaulkitako edo hartutako faktura zuzentzaileak?**

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulkitako eta hartutako faktura zuzentzaileak BHIren bidez erregistratu behar dira kasu guztietan.

Bereziki, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera jaulkitako edo hartutako faktura zuzentzaileak, aurreko zergaldietako aitorpen-likidazioak zuzentzekoak badira eta, hortaz, 2018ko urtarrilaren 1etik atzeragoko ekitaldietako erregistro liburuetan erregistratu direnak, BIHn jaso behar dira, zerga ondorioak dakartzatelako jaulkitzen edo hartzen diren datatik aurrera.

Esandakoa aplikagarria da BIHri 2018ko urtarrilaren 1a ez den uneren batean heldu dioten subjektu pasiboentzat, sistema erabiltzen hasi aurretik jaulkitako edo jasotako fakturei dagokienez.

**7973 2.35. BIHri heltzeko data urtarrilaren 1a ez bada, nola hornitu behar da ekitaldiaren hasieratik BIH erabiltzen den datara arte doan epealdiari buruzko informazioa?**

Ekitaldian zehar, BIH erabili behar duten subjektu pasiboek ekitaldi horren hasieratik bertatik egindako eragiketa guztien fakturazio erregistroen berri eman behar dute sisteman.

Fakturazio erregistroen eskema edo diseinua BIH erabiltzen hasten denetik erabiliko diren erregistroen berdina izango da, baina balidazioak desberdinak izango dira eta, horiei esker, behar-beharrezkoa dena baino ez da jasoko, BEZ zergari buruzko FDren 63.3, 64.4 eta 66.3 artikuluek xedatutakoari jarraiki.

Erregistroen aurkezpena errazteko, nahitaezko eremuen balidazio eskemari eutsi zaio, honako berezitasun hauek aintzat hartuta:

. ***Araubide bereziaren gakoa. "BIH erabiltzen hasi aurreko fakturak"****, negozioa garatzeko lokal baten errentamendua izan ezean (hala bada, araubide bereziaren gakoak erabili beharko dira, informazio hori nahitaezkoa baita 347 ereduan).*

. ***Eragiketaren deskribapena****: "BIH erabiltzen hasi aurreko ekitaldiari dagozkion eragiketen erregistroa".*

. ***Jaulkitako fakturen erregistro liburua:***

*Sisteman jasotzen den eragiketa mota gorabehera (lotugabea, lotua, salbuetsia edo ez salbuetsia), nolanahi ere, lotutako eta salbuetsi gabeko faktura gisa jaso beharko da.*

***Jasotako fakturen erregistro liburua:***
*. Kontabilitateko erregistro data: Bidalketa data.*
*. Kuota kengarria: Etiketan, 0 adierazi behar da.*

"BIH erabiltzen hasi aurreko beste faktura batzuk" gako berezia daukan erregistroa borondatezkoa da; hala, garapen teknikoak errazte aldera, informazioa helarazi ahalko da BIH erabiltzen hasten denetik baliatuko diren gako eta eduki berdinekin.

**7974 2.36. Zer faktura erregistratu behar da F1 gakoa erabiliz?**

• Faktura osoak, hartzailearen Identifikazio Fiskaleko Zenbakia adieraztea nahitaezkoa ez den faktura osoak izan ezik, fakturazio betebeharrak arautzen dituen Araudiaren 6.1 artikuluko d) letrak ezarritakoari jarraiki. Azkenen ezaugarria da faktura horien hartzailea ez dela identifikatu behar.

Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 7.2 eta 7.3 artikuluetan xedatutako faktura erraztu **kualifikatuak**. Azkenen ezaugarria da faktura horien hartzailea identifikatu behar dela. Faktura horiek berariazko marka batez jasoko dira jaulkitako fakturen erregistro liburuan eta jasotako fakturen erregistro liburuan.

**7975 2.37. "Faktura erraztua, 7.2, 7.3 artikuluak" izeneko marka erabil daiteke faktura zuzentzaileetan?**

Marka hori bateragarria da R1, R2, R3 eta R4 gakoen bidez erregistratutako faktura zuzentzaileekin.

**7976 2.38. Nola jaso behar dira sisteman beste entitate baten ondorengoa den entitate baten fakturazio erregistroak, sozietatea berregituratzeko eragiketei dagokienez?**

Sozietate baten berregituratzea dela eta, entitate baten ondorengoa den beste entitate batek aurrekoaren fakturazio erregistroak jaso beharko ditu sisteman: IFK + "izen abizenak edo sozietatearen izena".
Oinordekoa den entitatearen jabetzapeko fakturen erregistro liburuan erregistratuko dira ondokoak: • Aurreko entitatea hartzailea den jasotako fakturak erregistratuko dira, aurretiaz erregistratu eta sailkatu ez badira, autolikidazioaren ondorioetarako.
• Kutxako irizpidearen araubide bereziari lotutako jasotako fakturak, artean ordaindu ez badira: kasu horretan, fakturaren gaineko informazioa emango da berriro ere, eta ordainketen atalean, oinordekoa den entitateak egindako ordainketa baino ez da adieraziko.

• Kutxako irizpidearen araubide bereziari lotutako jaulkitako fakturak, artean ordaindu ez badira: kasu horretan, fakturaren gaineko informazioa emango da berriro ere, eta kobrantzen atalean, oinordekoa den entitateak egindako kobrantza baino ez da adieraziko.
• Aurreko entitateak egindako eragiketei dagozkien faktura zuzentzaileak.
• Bidaiarien BEZ itzulketak: (bakarrik aurreko entitateak 2019-01-01 data baino lehen egindako salmentetan. Aurreko entitateak 2019-01-01 datatik aurrera lehen egindako salmentei dagokienez, ikusi 3.4. galdera, maiz egindako galderetan).

- Zenbateko negatiboa daukan faktura baten erregsitroa, aurreko entitateak egindako jatorrizko eragiketa batean sortutako BEZaren minorazioari dagokiona.
- Aurrekoez gain, esportazioaren ondorioz, zerga oinarri salbuetsia daukan faktura berri baten erregistroa.

**7977 2.39. Noiz erabili behar da akatsak saihestea helburu duen fakturazio erregistroen identifikatzailea?**

Identifikatzailea erabili behar da atalase batetik gorako zenbatekoa darabilten fakturen erregistroan. Kasu honetan, atalasea 100.000.000 de eurokoa da. Horrenbestez, zenbateko hori gainditzen duten fakturen erregistroak identifikatzaile horrekin markatu beharko dira, akatsik ez dela gertatu ziurtatzeko.

**7978 2.40. Noiz erabil daiteke bidalketa epea bete ezin izan deneko erregistroak identifikatzeko marka berezia?**

Erregistro liburuetara bidaltzeko epea bete ezin izan deneko fakturazio erregistroak identifikatzeko marka bereziak (jaulkitako faktura, jasotako faktura edo Europako Erkidegoaren barruko eragiketa batzuentzat) zailtasunak ekarri dituenez, honako kasu hauetan baino ezin da erabili: Subjektu pasiboak enpresa handirako aldaketa edo ikuskapen eskumenaren aldaketa ziurtasun handiz jakiterik izan ez duenean, edo hileroko itzulketen erregistroan egindako alta eskera inskripzioak ondorioak dauzkan epealdiko lehen egunetik haragokoa denean.

**7979 2.41. Zer informazio erregistratu behar da "Kanpoko erreferentzia" izeneko eremuan?**

Eduki libreko edo irekiko eremua da. Eremu horren xedea hauxe da: egokitzat jotzen duten subjektu pasiboek erabiltzea izan dezaten, aurreko erregistro liburuetan izan zezakeen helburu berdinari helduta.

Adibidez: Kontabilitateko idazpenaren zenbakiaren berri eman daiteke.

**8307 2.42 Nola erregistratu behar dira Erresuma Batuarekin 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera egiten diren eragiketak?**

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, trantsizioaldia amaitutakoan, Erresuma Batua Europar Batasunetik kanpo geldituko da. Ordutik aurrera Erresuma Batua Batasunetik kanpoko herrialdea izango da eta hala tratatu beharko da BEZaren ondorioetarako, berezitasun hauek kontuan hartuz:

1. Irteera Akordioak bermatzen du Erresuma Batua Batasunetik irten aurretik hasitako salgai-mugimenduei mugimendua hasi denean Batasunean indarrean egon diren arauak aplikatuko zaizkiela.
2. Akordio horretan berariazko protokoloa ezarri da Ipar Irlandarako; izan ere, BEZaren ondorioetarako Ipar Irlanda Batasuneko lurraldea izango da ondasun-emateei dagokienez. Horretarako, Erresuma Batuak IFZ-BEZ (NVAT) berezia sortuko du, XI aurrezkiarekin, protokolo horri heldu ahal dioen subjektuentzat.

Horrenbestez:

1. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera ez dira onartuko hasieran GB duten IFF-BEZ (NVAT) zenbakiak. Hala ere, 2021eko urtarrilean hasieran GB duten IFZ-BEZ (NVAT) zenbakiak onartuko dira Erresuma Batua Batasunetik irten aurretik egindako eragiketetan.
2. Hasieran GB duten identifikazio-zenbakiak erregistratzeko 02 ez beste “IDType[1]” gakoak erabili behar dira.

## 3. JAULKITAKO FAKTUREN ERREGISTRO LIBURUA:

**6805 3.1. Bat etorri behar dute nahitaez 303 ereduan ageri den BEZ sortuak eta jaulkitako fakturen erregistroetatik datorrenak?**

Bai, honako kasu honetan izan ezik: Batasunaren barruko ondasun eta zerbitzu eskuraketak edo subjektu pasiboaren inbertsioa dagoen Batasunaren barruko eragiketak, besteak beste, eginez gero (eragiketa hauek jasotako fakturen erregistro liburuan baino ez dira ezarri behar).

**6917 3.2. Faktura erraztuak erregistratzen direnean, zerga kuota banakatu behar da?**

Nahiz eta faktura erraztuan kuota banakatu gabe egon, egindako fakturen erregistro-liburuan “F2", "F4" eta "R5" gakoak ezarriz gero, **nahiz eta adierazi behar dira zerga-oinarria**, **zerga-tasa** eta **jasanarazitako kuota**. Jasanarazitako kuotaren eremuko zenbatekoa zerga-oinarria tasaz biderkatzearen emaitza izan behar da (**10 euroko gorabehera onartuko da**).

**6918 3.3. Zer eskakizun bete behar da jaulkitako fakturen laburpenen idazpenak egiteko, BEZaren Araudiaren 63.4 artikuluak xedatutakoari jarraiki?**

- Faktura guztiak data bakarrean jaulki behar dira. Beraz, eguneroko laburpenen idazpenak izango dira.
- Hartzailea ez da nahitaez identifikatu behar.
- Eragiketa dokumentatuen sortzapena hil berean gertatu izana.

**6919 3.4. Bezero batek bidaiarien araubideko BEZa itzultzeko eskaera egiten badu, nola aldatu beharko da faktura jasanarazitako BEZa ez agertzeko?**

**2019-01-01etik aurrera egindako salmentak**

2019-01-01etik aurrera, BEZaren itzultzeak, bidaiarien araubidean, dirua itzultzeko dokumentu elektronikoaren (DER) bidez dokumentatu behar dira nahitaez.

2019-01-01etik, DERari dagokion informazioa bidali behar da, honela:

Jakinarazpen mota: A5.

Faktura-mota: F1.

Epea: kuota murrizten duen horretan.

Bidaltzailearen faktura-zenbakia: itzultzeko dokumentu elektronikoa identifikatzeko IAEAT edo ILR (1) kontsignatuko da.

Araubidea: 02 esportazioa.

Eragiketa-mota: kargapean eta salbuetsi gabe

Oinarria eta kuota: negatiboan kontsignatuko dira.

DERari dagokion informazioa likidazio-aldiaren ondorengo hileko 16a baino lehen bidali beharko da; bidaiarian jasandako kuotaren itzulpenari dagokion zuzenketa barne hartzen duena.

DER bat aldatzeko, A6 erabiliko da jakinarazpen-modu gisa.

(1) IAET: AEATk DERari esleitutako erreferentzia-zenbakia.

ILR: erakunde igorleak DER bati esleitutako erreferentziako tokiko identifikatzailea. Ez da beharrezkoa ILR izatea DER aurkezten bada AEATaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen formularioaren bidez.

**2019-01-01 baino lehen egindako salmentak**

2018-12-31ra arte, BEZ bidaiarien araubidea itzultzea lortzeko, saltzaileak igorritako faktura zein itzultzeko dokumentu elektronikoa erabili ahal zen.

2019-01-01etik aurrera bidaiarien araubidean gauzaturiko BEZaren itzultzeak, data hori baino lehen egindako salmentei dagokiena, DER baten bidez dokumentatuak, aurreko atalean aurreikusitako moduan erregistratuko dira.

Bestalde, 2019-01-01etik aurrera egindako itzultzeak, aipaturiko data baino lehenago egindako salmentei dagozkienak (DERik bidaltzeko beharrik ez zutenak), honela erregistratuko dira: Ez da faktura zuzentzailerik bidali beharko; hori dela eta, fakturaren datu berriak igorriko dira ("02: esportazioa" araubide berezia eta zero kuota) "A4" jakinarazpen-motarekin.

**EGUNERATUA 6920 3.5. Zer eragiketa mota sartzen dira "Araubide Bereziaren edo Zerga Garrantziaren Gakoa" eremuan?**

Eremu horretan jaso beharreko eragiketak eta gakoak ondokoak dira:

01 - Araubide orokorreko eragiketa

02 - Esportazioa
03 - Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide bereziari lotutako eragiketak

04 - Inbertsioko urrearen araubide berezia

05 - Bidaia agentzien araubide berezia

06 - BEZako entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua)

07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia

08 - IPSI / IGIC zergei lotutako eragiketak

09 - Haien izenean eta besteren kontura bitartekari jarduten duten bidaia agentzien zerbitzugintzaren fakturazioa (fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) hirugarren xedapen gehigarria)

10 - Hirugarrenen kontura (bazkideen, kideen edo elkargokideen kontura, alegia) lanbide ordainsariak, jabetza intelektual edo industrialaren edo egile jabetzaren ondoriozko eskubideak edo bestelakoen kobrantza, baldin eta kobratzaileak beren eginkizunen artean kobrantza egiten duten sozietate, elkarte, lanbide elkargo edo bestelako erakundeak badira.

11 - Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak

12 - Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotu gabekoak.

13 - Negozioa garatzeko lokala errentamenduan hartzeko eragiketak, atxikipenari lotuak eta lotu gabekoak.

14 - BEZ zerga sortu gabe duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat duten obra egiaztapenetan

15 - BEZ zerga sortu gabe duten fakturak, segidako traktuari lotutako ergaiketetan16 - IBES erabiltzen hasi aurreko beste faktura batzuk.

17- IX. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako araubideren bati (OSS eta IOSS) atxikitako eragiketa

**6916 3.6. Zer eragiketa mota erregistratu behar da Jaulkitako fakturen erregistro liburuaren "Hirugarrenen jaulkita" izeneko eremuan?**

Fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 5. artikuluak jasotako inguruabarra da: “Faktura jaulkitzeko betebeharra hartzaileak edo hirugarren batek betetzea”.

Ondokoak aintzat hartu behar dira:

- Ondasunaren eskualdatzaileak edo zerbitzu emaileak zehaztu behar du faktura zenbakia, hau da, Jaulkitako fakturen liburuaren jabeak. Ildo horretan, kontuan hartu behar da 4/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 6.1 artikuluko a) letrak Jaulkitako fakturen erregistro liburuaren titularra behartzen duela mota horretako fakturei serieko zenbakia ipintzera.
- Fakturazio erregistroak Foru Ogasunera bidaltzeko epea egutegiko zortzi egunekoa da (zenbaketa horretatik, egun ez-baliodunak kenduko dira).
- Erroldako aitorpenaren bidez (036 eredua) komunikatu beharko dira aukera hori, aukera zein datatik aurrera baliatzen den eta, hala badagokio, uko egitea eta ukoaren ondorio data.

“Fakturaren datuak” izeneko atalean, “S” laukia, “Hirugarrenek edo hartzaileak jaulkitako faktura” delakoari dagokiona, hautatu beharko da eta, gainera, atal horretako gainerako laukiak bete beharko dira.

**6921 3.7. BEZ zergari lotuta ez dauden baina salbuetsita dauden eragiketak erregistratu behar dira? Nola?**

Bai. Faktura jaulkitzeko betebeharra badago (fakturatzeko betebeharrak arautzen dituen Araudiaren (4/2013 Foru Dekretua) 2. eta 3. artikuluak), faktura erregistratu behar da.

Zergari lotuta ez dagoen eragiketa izanik, “Fakturaren zehaztapena” izeneko blokearen barruan jasoko da, ondoko eremuetako batean, lotuta ez dagoelako zioa zein den:

- Kargarik gabeko zenbatekoa, 7, 14 eta beste artikulu batzuei jarraiki.
- Kargarik gabeko zenbatekoa, kokapen arauei jarraiki.

Salbuetsitako eragiketa izanik, "Fakturaren zehaztapena" izeneko blokearen barruan jasoko da, "Lotua" eta "Salbuetsia" gisa; zerga oinarria adierazi beharko da eta, aukeran, salbuespenaren arrazoia, ondoko gakoak erabiliz:

"E1: 20. artikuluak salbuetsita"
"E2: 21. artikuluak salbuetsita"
"E3: 22. artikuluak salbuetsita"
"E4: 23 edo 24. artikuluek salbuetsita"
"E5: 25. artikuluak salbuetsita"
"E6: beste zio batzuek salbuetsita"

Informazio hori eduki ezean, nahikoa izango da salbuetsitako eragiketa dela adieraztea.

Salbuesteko hainbat zio dituzten eragiketak ageri badira fakturan, horietako bakoitzari dagokion salbuetsitako oinarriaren zenbatekoa banakatu ahal izango da.

### 6922 3.8. Nola erregistratzen da subjektu pasiboaren inbertsio eragiketa bat?

Espainiako enpresak diren bezeroei dagokienez, hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak fakturaren datuak erregistratu beharko ditu Jaulkitako fakturen erregistro liburuan, eta “Fakturaren zehaztapena” izeneko blokean, “S2” gakoa adierazi beharko du, honela: Lotua – Ez salbuetsia – Subj. Pasiboaren Inb.”. “Zerga tasa” izeneko eremuan, zero zenbatekoa adieraziko da eta “jasanarazitako kuotarena” ere zero izango da.

Europako Erkidegoaren barruko enpresak diren bezeroei dagokienez, hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak fakturaren datuak erregistratu beharko ditu Jaulkitako fakturen erregistro liburuan, eta “Eragiketa motaren zehaztapena” izeneko blokean, “Kokapen arauen zioz ez lotuen zenbatekoa” hautatuko da. Era berean, adierazi beharko da ondasunen ematea den edo zerbitzugintza den.

### 6923 3.9. Nola erregistratzen dira Europako Erkidegoaren barruko ondasunen emateak?

Europako Erkidegoaren barruko bezeroari bidalitako faktura Jaulkitako fakturen erregistro liburuan jasoko da, eta identifikatu egingo da 2 gakoa erabiliz, Identifikazio mota izeneko eremuan, bizilekuko herrialdeari dagokion atalean, hots, “IDType”, eta Europako Erkidegoaren barruko Operadorearen Zenbakia adieraziko da "ID" eremuan. “Herrialde kodea” izeneko eremua betetzea ez da nahitaezkoa.

Beste alde batetik, fakturaren zerga oinarria “Eragiketa motaren zehaztapena” izeneko eremuan jasoko da, “Ematea” blokearen barruan, “Salbuetsia" deritzon eragiketa motaren eremuan. Salbuespenaren zio gisa, honako gako hau adieraziko da: “E5: 25. artikuluak salbuetsita”.

### 6924 3.10. Nola erregistratzen dira esportazioak?

Eragiketa Jaulkitako fakturen erregistro liburuan jaso behar da.

“Araubide bereziaren gakoa / Transzendentzia” izeneko eremuan, 02 balioa adieraziko da. Bezeroa identifikatu beharko da –atzerrikoa baldin bada–“Herrialde kodea” eremuaren eta ondoko gakoen bidez: 3 “Pasaportea”, 4 “Bizilekuko herrialdeak edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala”, 5 “Egoitza egiaztagiria” edo “IDType” eremuan ageri den 6 “Beste frogagiriren bat”.
Beste alde batetik, fakturaren zerga oinarria “Eragiketa motaren zehaztapena” izeneko eremuan jasoko da, “Ematea” blokearen barruan, “Salbuetsia" deritzon eragiketa motaren eremuan. Salbuespenaren zio gisa, honako gako hau adieraziko da: “E2: 21. artikuluak salbuetsita”.

**6925 3.11. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (12/1993 FDAren 9.1 artikuluko a) eta b) letrak)?**

Ondasunen parekotzat jotako eragiketak dira ("kanpoko" autokontsumoko eragiketa ere esaten zaie), eta Jaulkitako fakturen erregistro liburuan jaso behar dira, zerga kalifikazioari erreparaturik, inolako berezitasunik nabarmendu gabe.

**6926 3.12. Nola erregistratzen dira ondasunen autokontsumoko eragiketak (12/1993 FDAren 9.1 artikuluko c) eta d) letrak)?**

Ondasunen parekotzat jotako eragiketak dira ("barruko" autokontsumoko eragiketa ere esaten zaie), eta Jaulkitako fakturen erregistro liburuan zein Jasotako fakturen erregistro liburuan jaso behar dira, zerga kalifikazioari erreparaturik. Bi kasuetan, fakturaren igorlearen identifikazioak bat etorri behar du kontrako alderdiaren identifikazioarekin.

**6927 3.13. Nola erregistratzen da negozioko lokal batzuen errentamendua dakarren jaulkitako faktura bat?**

Jaulkitako faktura Araubide Bereziko “11" eta “12” gakoez erregistratuko da, errentamenduak atxikipenik daukan kontuan hartuta, eta “13" gakoaz fakturan bi errentamendu mota horiek jasotzen badira.

Atxikipenik gabeko errentamendua izanez gero ("12" eta "13" gakoak), higiezinaren eta katastroko erreferentziari dagozkion eremuak ere bete beharko dira lokal bakoitzeko.

Katastroko erreferentzien kopurua 15etik gorakoa bada, lehenengo hamabostak igorriko dira jaulkitako fakturen XML fitxategian, eta gainerakoak berariazko XML fitxategi baten bidez.

**6928 3.14. Fakturaren datuak zehazterakoan, adierazi behar da eragiketa ondasunen ematea den ala zerbitzugintza den?**

Eragiketa mota nahitaez zehaztu behar da bezeroa atzerrikoa denean (“ID Beste bat”, 07 gakoa edo N letraz hastez den IFK izan ezi) eta faktura erraztua edo laburpenaren idazpena ez denean.

**6929 3.15. Zer informazio jaso behar da "Likidazio aldia" izeneko blokean?**

Erregistratutako fakturari dagozkion ekitaldia eta sortzapen aldia.

Adibidea: 2018/03/28ko datan, salgai batzuk saldu dira eta eragiketa 2018/04/06ko datan jaulkitako fakturaren bidez dokumentatu da. Noiz eman behar dira datuak BIHren bidez? Zein liburutan erregistratu behar da?

Datuak faktura jaulki den datatik aurrerako 4 egunen barruan eman behar dira: 2018/04/12ra arte (7 eta 8 ez dira baliodunak). 03 aldian (2018ko martxoa) jaulkitako fakturen erregistro liburuan erregistratu behar dira.

Faktura zuzentzaileei gagozkiela, aitorpen-likidazioaren zuzenketa egiten deneko ekitaldia eta epealdia adieraziko dira, BEZ zergaren 1994/7 Foru Arauaren 89. artikuluak ezarritakoari jarraiki.

**6930 3.16. Nola erregistratu behar du fabrikatzaile batek zergaren zerga oinarriaren minorazioa bere banatzaileen bezeroei emandako kupoi, hobari edo beherapenen zioz?**

Halako inguruabarretan, fabrikatzaileak faktura zuzentzailearen jatorrizkoa baino ez du jaulkiko; izan ere, ez da bidezkoa banatzaileari kopiarik igortzea, banatzaileak ez baitu sortutako kuotak zuzendu, ezta kenkariak ere.

Informazioa “Fakturaren zehaztapena" izeneko blokean jaso beharko da, “kupoia” izeneko eremua hautatuta.
Eremu hori bateragarria da R1, R2 (faktura zuzentzaile erraztua) gakoekin eta F4 (fakturen laburpenaren idazpena) gakoarekin.Adibidea: Banatzaileak kontsumitzaileei eskainitako beherapena 121 eurokoa bada, eta zenbateko hori fabrikatzaileak ordaintzen badu, fabrikatzaileak 100 euroko murrizpena egingo dio zerga oinarriari (121 euro/1,21). DGT V2966-15 Kontsulta.

**6932 3.17. Nola erregistratzen dira hainbat hartzaile dituzten fakturak?**

Hartzaileetako bat hartuko da hartzailetzat eta "Hainbat hartzailerentzako faktura” izeneko eremua hautatuko da.

**6933 3.18. ¿Nola erregistratzen da zenbakirik gabe jaulkitako faktura bat (foru administrazioak emandako baimena dela bide)?**

F1 gakoa erabiliz erregistratuko da, eta segidako zenbaki bat esleituko zaio fakturari. Zenbaki hori ezin da data berean eta jaulkitzaile berak egindako beste faktura baten berdina izan.

**6934 3.19. Nola erregistratzen da araubide bereziko gako batzuk dituzten eragiketak dakartzan faktura bat?**

| *Gako bateragarriak* | |
|---|---|
| *07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia* | *01 – Araubide orokorra* |
| | 03 - Erabilitako Ondasunen Araubide Berezia |
| | 05 – Bidaia agentziak |
| | 09 – Bidaia agentziak |
| | 11, 12 eta 13 - Negozioko lokalen errentamendua |
| | 14 – Sortu gabeko BEZa. Obra publikoen egiaztapenak |
| | 15 – Sortu gabeko BEZa. Segidako traktua. |
| 05 - Bidaia agentzien araubide berezia | 01 – Araubide orokorra |
| | 06 – Maila aurreratuko BEZ taldearen araubide berezia |
| | 07 – Kutxa irizpidea |
| | 11, 12 eta 13 - Negozioko lokalen errentamendua |
| 06 – Maila aurreratuko BEZ taldearen araubide berezia | 05 - Bidaia agentzien araubide berezia |
| | 11, 12 eta 13 - Negozioko lokalen errentamendua |
| | 14 – Sortu gabeko BEZa. Obra publikoen egiaztapenak |
| | 15 – Sortu gabeko BEZa. Segidako traktua. |
| 11, 12 eta 13 - Negozioko lokalen errentamendua | 06 – Entitate taldea. |
| | 07 – Kutxa irizpidea. |

| | |
|---|---|
| | 08 - IGIC, IPSI zergei lotutako eragiketak |
| | 15 – Sortu gabeko BEZa. Segidako traktua. |
| 03 - Erabilitako Ondasunen Araubide Berezia | 01 – Araubide orokorra |
| 01 – Araubide orokorra | 02 - Esportazioa |
| | 05 - Bidaia agentzien araubide berezia |
| | 07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia |
| | 08 - IGIC, IPSI zergei lotutako eragiketak |

07 gakoa (Kutxa irizpidea), lehena izan behar da beti informazioa ematerakoan.

05 gakoa (Bidaia agentziak) lehena izan behar da beti informazioa ematerakoan, 07 gakoarekin (Kutxa irizpidea) batera agertzen ez bada.

06 gakoa (Maila aurreratuko BEZ zergaren entitate taldearen araubide berezia) lehena izan behar da informazioa ematerakoan, 11, 12, 13, 14 eta 15 gakoekin batera agertzen denean.

03 gakoa (Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide berezia) lehena izan behar da informazioa ematerakoan 01 gakoarekin batera agertzen denean.

Jarraibide horiek gorabehera, zenbatekoak ez dira gako bakoitzeko banakatu behar, baina informazioa eman beharreko eremu osagarriak aintzat hartu behar dira, gako bakoitzari erreparaturik.

**6935 3.20. Noiz erabili behar da araubide bereziko gako hau: 14 - Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat duten obra egiaztapenetan?**

Gako hori erabiltzen da egindako obren egiaztapenari dagokion informazioa ematerakoan, hartzailea administrazio publiko bat denean, baina zerga artean sortu ez denean, ondoko inguruabarrak gertatu direlako:

- Gauzatutako obrari dagokion zenbatekoa osorik edo zati batez ez da ordaindu.

- Obraren harrera ez da osorik edo zati batez gauzatu, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore publikoaren kontratuei buruzkoak, 243. artikuluan dioenari jarraiki. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Europako Batzordearen 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako antolamendu juridikora.

**7981 3.21. 14 gakoa ("Sortu gabeko BEZ zerga duten fakturak, hartzailea administrazio publiko bat dutena") erabiliz adierazitako obra egiaztapenetan, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta kobrantza aurreratzen bada?**

Administrazio Publiko bat hartzaile duen eta 14 gakoa "Sortu gabeko BEZ zerga duen faktura erabiliz erregistratu den obrako egiaztapen baten kobrantza atzeratzen bada, obraren harrera osorik edo zati batez gauzatu ez delako, aldaketa egin beharko da erregistroan, A1 komunikazio mota baliatuz; halakoetan, kobratzeko aurreikusten den data jaso beharko da eragiketaren data gisa eta horri dagokion likidazio aldia ere jaso beharko da.
Aurreikusitako dataren aldean, obrako egiaztapenaren **kobrantza aurreratzen bada**, jaulkitzaileak hauexek egin beharko ditu:
- jasotako ordainketari jaulki den faktura erregistratu beharko du eragiketa mota orokorretako gakoak erabiliz.

- 14 gakoa erabiliz, hasiera batean erregistratutako obrako egiaztapena aldatu beharko du; horretarako, aurretiaz kobratutakoen zerga oinarria eta guztizko zenbatekoa gutxitu beharko ditu. Aurretiazko ordainketa egiaztapenaren zenbateko osoari baldin badagokio, zero adierazi beharko da erregistro horretan.

**6936 3.22. Noiz erabili behar da araubide bereziko gako hau: 15 - BEZ zerga sortu gabe duen faktura, segidako traktuari lotutako eragiketetan?**

Segidako traktua duten eragiketak (hornidurak, errentamenduak...) dakartzaten dokumentuei buruzko informazioa emateko erabiltzen da. Dena dela, zehaztu beharra dago 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 6 eta 7 artikuluetan ezarritako betekizunak bete arren, ez direla fakturatzat jotzen, ez dutelako zergaren sortzapena sorrarazten, ondoko inguruabarrak gertatzen direlako:

- Fakturatutako zenbatekoa ezin da jaulkipen datan eskatu.
- Ez da osorik edo zatika ordaindu.

Kontuan hartu behar da, eragiketaren data gisa, galdagarritasun data (sortzapena) adierazi beharko dela eta, era berean, data horrek informatu beharreko epealdia zehaztuko duela.

**7980 3.23. 15 gakoa (BEZ zerga sortu gabe duen faktura, segidako traktuari lotutako eragiketetan) erabiliz erregistratutako eragiketei dagokienez, hasierako erregistroa aldatu behar da kobrantza atzeratzen bada? Eta kobrantza aurreratzen bada?**

Kobrantza atzeratzen bada, ez da aldaketarik egin beharko erregistroan, sortzapena sortzen baita ordainketa galdagarria den unean, ordainketa noiz egiten den gorabehera (kutxa irizpidearen araubide berezia aplikagarria den eragiketetan izan ezik).
Aurreikusitako epearen aldean, **kobrantza lehenago** gertatzen bada, hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak ondoko egin beharko ditu:
- ordainketaren zioz jaulkitako faktura F1 gako orokorra erabiliz erregistratzea.
- 15 gakoa erabiliz, hasiera batean egindako erregistroa aldatu beharko du; horretarako, aurretiaz kobratutakoen zerga oinarria eta guztizko zenbatekoa gutxitu beharko ditu. Aurretiazko ordainketa prezioaren zenbateko osoari baldin badagokio, zero adierazi beharko da erregistro horretan.

**8276 3.24 izango da. Zer faktura erregistratu behar da honako marka honekin: "Fakturazioa gasaren merkatu antolatuaren hirugarren eta seigarren xedapen gehigarrien arabera"?**

Soilik hirugarrenek egiten dituztenak arautegiarekin bat etorriz (Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretua, urtarrilaren 22koa, fakturazio-betebeharren araudia onesten duena, bigarren eta bosgarren xedapen gehigarriak) eta gasaren merkatu antolatuaren arabera.

**8278 3.25 izango da. Zer faktura erregistratu behar da F2 gakoarekin?**

- Faktura erraztuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 Foru Dekretuak, fakturazio- betebeharrei buruzko araudia onesten duenak, 7.2 eta 7.3 artikuluetan arautzen dituen faktura erraztu kualifikatuak izan ezik; horiek nola erregistratu behar diren 2.32 galderaren azaltzen da ("Zer faktura erregistratu behar da F1 gakoarekin?").
- Faktura-betebeharren araudiaren 6.1 artikuluaren d) letran ezartzen denaren arabera hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia nahitaez adierazi behar ez den faktura osoak. Faktura horietan ez da zehazten hartzailea. Faktura horiek marka bereziarekin ezartzen dira egindako fakturen erregistro-liburuan.

**8279 3.26 izango da. Erabil daiteke "Hartzaile-identifikaziorik gabeko faktura, 6.1.d artikulua" marka faktura zuzentzaileetan?**

Marka hori R5 gakoarekin erregistratutako faktura zuzentzaileetan erabil daiteke.

**9961 3.27 Noiz erabili behar da Jaulkitako Fakturen Erregistro Liburuan dagoen "Araubide Berezia edo Garrantzia" eremuko "Lanbide-ogibidesarien edo industria-jabetzatik eratorritako eskubideen kobrantzak hirugarrenen kontura, egilearenak edo bazkideen, elkartekideen edo elkargokideen kontura, sozietateen, elkarteen, elkargo profesionalen edo kobrantza-eginkizun horiek betetzen dituzten beste erakunde batzuen kontura" 10. gakoa?**

10. gakoa elkarteek, elkargo profesionalek edo SIIn sartutako beste erakunde batzuek soilik erabili behar dute, jabetza intelektualetik, egiletik edo bazkideen kontura kobratutako beste batzuetatik eratorritako ordainsari profesionalei edo eskubideei buruzko informazioa emateko. Kobrantza horiek ez dira faktura batean dokumentatzen, SIIn 10. gakoa duen fakturazio-erregistro gisa informatu behar dira. Faktura-zenbaki gisa, elkarteak edo elkargoak bazkideari egindako ordainketaren egiaztagiriari esleitutako zenbakia jasoko da, eta, emate-data gisa, elkarteak edo elkargoak kobratutakoa jasotzen duen data, kobratu duenaren

kontura bazkidea kontrako alderdi gisa identifikatuz. Eragiketa honela erregistratuko da: "7., 14. eta beste artikulu batzuek lotu gabe", kontraprestazioaren zenbateko osoa adierazita.

Bazkideak emandako zerbitzua dokumentatzen duen faktura bazkidearen fakturen erregistro-liburuan erregistratu beharko da, faktura elkarteak, elkargo profesionalak edo elkartekidearen izenean beste erakunde batek jaulki duen kontuan hartu gabe.

10. gakoa EZ da erabiliko honako eragiketa hauetan:

- Elkarteak berak, elkargo profesionalak edo erakundeak bere bazkideei emandako zerbitzuak. 01 gakoarekin erregistratu beharko dira (beste gako espezifikoren bat dagoenean izan ezik).

- Elkarteak, elkargo profesionalak edo erakundeak bere bazkideek bezeroei emandako zerbitzuak berriro fakturatzea. Kasu horretan, elkartekideak elkarteari, elkargoari edo erakundeari emandako zerbitzuen faktura jaulki beharko du, eta hark bere izenean faktura egingo dio bezeroari. Bi fakturak 01 kodearekin erregistratuko dira (beste gako espezifikoren bat dagoenean izan ezik) elkartekidearen eta elkartearen, elkargoaren edo erakundearen erregistro-liburuan, hurrenez hurren.

**Adibidea**: Elkargo profesional batek 202X 12.100 euroko ordainsaria izango du urtarrilaren 11n, elkargokide batek emandako zerbitzu bati dagokiona. Elkargokidearen izenean elkargoak egindako faktura honetan dokumentatzen da zerbitzua:

- 1/202X-A zenbakiko faktura
- Jaulkipen data: 202Xko urtarrilaren 2a
- Zerga-oinarria: 10.000 euro
- Mota: % 21
- Kuota: 2.100 euro
- Ordainketaren egiaztagiriak honako zenbaki hau du: 5/202X
- Elkargoak HAAJLn erregistratzea:
- Faktura-zenbakia: 5/202X
- Fakturaren jaulkipen-data: 11-01-202X
- Kontrako datuak: IFZ eta elkargokidearen izena
- Guztira: 12.100 euro
- 10. gakoa
- Lotu gabeko eragiketa
- Elkargokideak HAAJLn erregistratzea:
- Faktura-zenbakia: 1/202X-A

- Fakturaren jaulkipen-data: 02-01-202X
- Kontrako datuak: IFZ eta zerbitzua ematen zaion bezeroaren izena
- Guztira: 12.100 euro
- 01. gakoa
- Eragiketa lotua eta ez salbuetsia
- Zerga-oinarria: 10.000 euro
- Mota: % 21
- Jasanarazitako kuota: 12.100 euro

**BERRIA 9955 3.28 Noiz erabiltzen da 17. gakoa, IX. tituluko XI. kapituluan (OSS eta IOSS) aurreikusitako araubideren bati helduta?**

17. gako berria 2021eko uztailaren 1etik dago indarrean, eta Espainiako edo beste estatu kide bateko BEZari lotutako eragiketak dokumentatzen dituzten fakturak erregistratzeko erabiliko da, baldin eta eragiketa horiek erregistratzeko betebeharra duenak BEZaren IX. tituluko XI. kapituluan aurreikusitako araubide bereziren bati heldu badio:

- Batasunaren kanpo-araubidea.
- Batasunaren araubidea.
- Inportazio-araubidea (IOSS).

**1. adibidea:**
Zerga aplikatzen den Espainiako lurraldean ezarritako A erakundeak 2021eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin heltzen dio Batasunaren araubideari (identifikazioko estatu kidea: Espainia). Uztailaren 20an, Frantzian kokatutako partikular bati salmenta bat egin zion, eta hara bidali zituen ondasunak ZALetik. Frantzian aplikatu beharreko tasa orokorra % 20koa da. Ondasunen salmenta prezioa 200 eurokoa da, Frantziako BEZik gabe.
A (r) en bidez egindako salmentak % 20ko tasa izango du Frantzian (beste kide batzuen partikularrei egindako salmentak 10.000 eurotik gorakoak dira).
Egindako salmentaren faktura jaulki beharko du, eta Frantziako BEZa Batasuneko erregimenaren bidez sartu beharko du (369 eredua).
Jaulkitako fakturaren SIIko erregistroa FAQ 3.4 arauaren arabera egingo da, eta, horretarako, araubide bereziko 17. kodea erabiliko da, eta 200 kontsignatua, atxiki gabeko blokearen kokapen-arauen mende ez dagoen eremuan. Faktura osoa egiten bada, eragiketa motaren arabera banakatuko da, eta ondasunen entrega bat dela adieraziko da.
Faktura sinplifikatua jaulkitzen bada, banakapena fakturaren mailakoa izango da.
**2. adibidea:**
1. adibideko enpresariak uztailaren 25ean ondasunak saltzen dizkio Penintsulan kokatutako azken kontsumitzaile bati. Salmentaren zenbatekoa: 1.000 euro, BEZa barne, tasa orokorrik gabe.
Kasu horretan, A letrak egindako salmentak Espainian ordainduko ditu zergak. Salmenta hori, Batasunaren erregimenaren bidez aitortu ezin denez, 303 ereduaren bidez sartuko da.

Kasu horretan, 17. gakoa ez da erabiliko SIIn A motako faktura erregistratzeko, eta dagokion blokea bete beharko da, mota, oinarria eta kuota adierazita.

**3. adibidea:**

1. adibideko enpresariak uztailaren 30ean Txinatik inportatutako ondasunak saltzen dizkio Penintsulan kokatutako azken kontsumitzaile bati. Salmentaren zenbatekoa: 100 euro, BEZa, tasa orokorrik gabe. Inportazio-erregimenari atxikita dago 2021eko uztailaren 1etik.

Kasu honetan, A enpresak egindako salmentak Espainian ordainduko ditu, inportazio-erregimenaren bidez (369 eredua).

Jaulkitako faktura SIIn erregistratzeko, 17. araubide bereziko gakoa erabiliko da, eta atxikitako/ez salbuetsitako blokea bete beharko da, mota, oinarria eta kuota adierazita.

Inportazioagatik, A -k DUA edo H7 erregistratu beharko ditu Faq-en aurreikusitako moduan: NOLA ERREGISTRATZEN DA INPORTAZIO BAT?

## 4. JASOTAKO FAKTUREN ERREGISTRO LIBURUA:

### 6806 4.1. Bat etorri behar dute nahitaez BEZaren autolikidazioan jasotako BEZ kengarriak eta jasotako fakturen erregistroetatik datorrenak?

Bai, honako kasu honetan (besteak beste) izan ezik: kenkaria ez denean aplikatzen faktura jasotzen den likidazio aldian, sortzapenaren ondoko lau urteetan.

### 6937 4.2. Zer agiri erregistratzen da faktura motaren gako hau erabiliz: “F6: kontabilitateko egiaztagiriak”?

Bi agiri mota erregistratu behar dira:

- Eragiketaren kontabilitateko idazpenaren euskarri den zeinahi agiri mota, Europako erkidegoan egoitza ez daukan enpresaburu edo profesional batek egiten duenean (18/2013 Foru Dekretuak onartutako Fakturazio Araudiaren 2.4. artikulua).
- Fakturatzat jo ezin diren arren, kenkaria baliatzeko eskubidea ematen duten agiriak. Liburuaren jabeak esleitzen dien zenbakia erabiliz erregistratuko dira, eta zenbaki hori ezin da data berean eta jaulkitzaile berak informatutako beste baten berdina.

Adibideak: Higiezin baten salerosketako eskritura publikoa, fakturarik jaulki ez denean edo Fakturazio Araudiaren 16.1 artikuluak jasotzen dituen nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagiriak.

### BERRIKUSIA 8280 4.3 Faktura zuzentzailea jasotzen duenak “Rx” gakoarekin erregistratu behar du?

Ez; jasotako fakturetan eremu hori aukerakoa da.
Nolanahi ere, jasotako faktura zuzentzailea ordezpenekoa bada eta bertan zuzenketaren ondoriozko zenbateko zuzenak ez ezik zuzendutako zenbatekoak ere agertzen badira eta zenbateko horiek zero ez badira, horren berri eman behar da erregistroan.

***Ordezpeneko faktura zuzentzaileak; adibideak:***

***1. adibidea. Jasandako BEZa murriztu***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 800 €; jasanarazitako kuota: 168 €; zerga-oinarri zuzendua: 1.000 €;*
*zuzendutako kuota: 210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (1.000) eta "zuzendutako kuota" (210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 168.*
*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria 800 €-koa dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.000; jasandako kuota: -210; kuota kengarria: -210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 168.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 168.*

***2. adibidea: Jasandako BEZa gehitu***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 1.200 €; jasanarazitako kuota: 252 €; zerga-oinarri zuzendua: 1.000 €; zuzendutako kuota: 210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (1.000) eta "zuzendutako kuota" (210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 1.452 € izango da.*

*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.200; jasandako kuota: 252; kuota kengarria: 252.*

*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria 1.200 €-koa dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.000;*
*jasandako kuota: -210; kuota kengarria: -210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 1.452 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.200; jasandako kuota: 252; kuota kengarria: 252.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.200; jasandako kuota: 252; kuota kengarria: 252.*

***3. adibidea: Jasandako BEZa murriztu faktura ez ordaintzeagatik***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 1.000 €; jasanarazitako kuota: 0 €; zerga-oinarri zuzendua: 1.000 €; zuzendutako kuota: 210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R2 / R3*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (1.000) eta "zuzendutako kuota" (210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 1.000 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 0; kuota kengarria: 0.*
*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, kuota -210 duena,, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria 1.000 €-koa dela eta kuota 0 dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.000*
*jasandako kuota: -210; kuota kengarria: -210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R2 / R3*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 1.000 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 0; kuota kengarria: 0.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*

*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 0; kuota kengarria: 0.*

***4. adibidea: Faktura zuzentzaile baten zuzenketa: jasandako BEZa gehitu.***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: -800 €; jasanarazitako kuota: -168 €; zerga-oinarri zuzendua: -1.000 €; zuzendutako kuota: -210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (-1.000) eta "zuzendutako kuota" (-210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna -968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -800; jasandako kuota: -168; kuota kengarria: -168.*

*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, jasanarazitako kuota 210 duena,, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria -800 €-koa dela eta kuota -168 dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 210; kuota kengarria: 210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna -968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: -800; jasandako kuota: -168; kuota kengarria: -168.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: -800; jasandako kuota: -168; kuota kengarria: -168.*

***5. adibidea: Faktura zuzentzaile baten zuzenketa: jasandako BEZa murriztu.***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: -1.200 €; jasanarazitako kuota: -252 €; zerga-oinarri zuzendua: -1.000 €; zuzendutako kuota: -210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (-1.000) eta "zuzendutako kuota" (-210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna -1.452 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.200; jasandako kuota: -252; kuota kengarria: -252.*

*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa.*

*1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, jasanarazitako kuota 210 duena,, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria -1.200 €-koa dela eta kuota -252 dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 210; kuota kengarria: 210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna -1.452 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.200; jasandako kuota: -252; kuota kengarria: (-252).*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.200; jasandako kuota: -252; kuota kengarria: -252.*

***6. adibidea: Zenbateko negatiboa daukan faktura zuzentzailearen zuzenketa: jasandako BEZa gehitu zenbateko positibora iristeko.***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 500 €; jasanarazitako kuota: 105 €; zerga-oinarri zuzendua: -1.000 €; zuzendutako kuota: -210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (-1.000) eta "zuzendutako kuota" (-210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 605 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 500; jasandako kuota: 105; kuota kengarria: 105.*

*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, jasanarazitako kuota 210 duena,, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria 500 €-koa dela eta kuota 105 dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 1.000; jasandako kuota: 210; kuota kengarria: 210.*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R4*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 605 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 500; jasandako kuota: 105; kuota kengarria: 105.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*

*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 500; jasandako kuota: 105; kuota kengarria: 105.*

***7. adibidea: Jasandako BEZa murriztu kenkari partzialagatik.***

*1. aukera: Ordezpeneko faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 800 €; jasanarazitako kuota: 168 €; zerga-oinarri zuzendua: 1.000 €; zuzendutako kuota: 210 €. BEZ kengarria jasandako kuotaren % 50 da.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (1.000) eta "zuzendutako kuota" (210).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 84*
*Eragin-maila %100 ez bada, zuzendutako kuotaren eremuan 210 x % 50 =* 105 hasierako kuota kengarria jaso beharko da.

*2. aukera: Faktura egin duenak bi fakturaren bidez egin du aurreko zuzenketa. 1.000 €-ko zerga-oinarria duen faktura jaso da, eta aurrekoa zuzentzen duen beste bat, zerga-oinarria 800 €-koa dela adierazten duena.*
*Lehen faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -1.000; jasandako kuota: -210; kuota kengarria:*
-105.
*Kuota kengarriaren eremuan ipini beharreko kopurua kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: jasandako kuota kenkari-ehunekoaz biderkatu, hau da, -210 x % 50*
*Beste faktura honako eremu eta gako hauekin sartu behar da jasotako fakturen erregistro-liburuan:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: S*
*Zuzenketaren zenbatekoa: bi eremu osagarri bete behar dira: "zuzendutako oinarria" (0) eta "zuzendutako kuota" (0).*
*Zenbatekoa, guztira: amaierako zenbateko balioduna 968 € izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 84.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 800; jasandako kuota: 168; kuota kengarria: 84.*
*Kuota kengarriaren eremuan ipini beharreko kopurua kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: jasandako kuota kenkari-ehunekoaz biderkatu, hau da, 168 x % 50*

***Diferentziako faktura zuzentzaileak; adibideak:***

***1. adibidea. Jasandako BEZa murriztu***

*Diferentziako faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: -200 €; jasanarazitako kuota: -42 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*

*Faktura zuzentzailearen mota: I*
*Zenbatekoa, guztira: zuzenketaren guztirako zenbateko -242 izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -200; jasandako kuota: -42; kuota kengarria: -42.*
*Faktura hau zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -200; jasandako kuota: -42; kuota kengarria: -42.*

***2. adibidea: Jasandako BEZa gehitu***

*Diferentziako faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 200 €; jasanarazitako kuota: 42 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: I*
*Zenbatekoa, guztira: zuzenketaren guztirako zenbateko 242 izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 200; jasandako kuota: 42; kuota kengarria: 42.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 200; jasandako kuota: 42; kuota kengarria: 42.*

***3. adibidea: Jasandako BEZa murriztu faktura ez ordaintzeagatik***

*Diferentziako faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: 0 €; jasanarazitako kuota: -210 €.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: R2 / R3*
*Faktura zuzentzailearen mota: I*
*Zenbatekoa, guztira: zuzenketaren guztirako zenbateko -210 izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 0; jasandako kuota: -210; kuota kengarria: -210.*
*Bigarren faktura zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: 0; jasandako kuota: -210; kuota kengarria: -210.*

***4. adibidea: Jasandako BEZa murriztu kenkari partzialagatik.***

*Diferentziako faktura zuzentzailea jaso da honako datu hauekin: zerga-oinarria: -200 €; jasanarazitako kuota: -42 €. BEZ kengarria jasandako kuotaren % 50 da.*
*Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako eremu eta gako hauek ezarri behar dira:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: Rx*
*Faktura zuzentzailearen mota: I*
*Zenbatekoa, guztira: zuzenketaren guztirako zenbateko -242 izango da.*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -200; jasandako kuota: -42; kuota kengarria: -21.*
*Faktura hau zuzentzaile moduan erregistratu ez bada:*
*Komunikazio-mota: A0*
*Faktura-mota: F1*
*BEZaren banakapena: zerga-oinarria: -200; jasandako kuota: -42; kuota kengarria: -21.*

*Kuota kengarriaren eremuan ipini beharreko kopurua kalkulatzeko eragiketa hau egin behar da: jasandako kuota kenkari-ehunekoaz biderkatu, hau da, -42 x % 50*

**6938 4.4. Faktura erraztu baten ordez jaulkitako faktura baten hartzaileak horrelakotzat sailkatu behar du "F3" gakoa erabiliz?**

Jasotako fakturei dagokienez, eremu hori hautazkoa da.

**6939 4.5. Zer eskakizun bete behar da jaulkitako fakturen laburpenen idazpenak egiteko, BEZaren Araudiaren 64.5 artikuluak xedatutakoari jarraiki?**

Faktura guztiak data bakarrean jaulki behar dira.

- Hornitzaile bakarraren fakturak izan behar dira.
- Eragiketen guztizko zenbatekoa, BEZ zerga aintzat hartu gabe, ezin da 6.000 eurotik gorakoa izan.
- Faktura bakoitzean dokumentatu diren eragiketen zenbatekoa ezin da 500 eurotik gorakoa izan, BEZ zerga aintzat hartu gabe.

**6940 4.6. Faktura erraztuak erregistratzen direnean, zerga kuota banakatu behar da?**

Oro har, ez da beharrezkoa.

“F2", "F4" (faktura erraztuen laburpenaren idazpen) eta "R5" (hautazkoa) gakoak adierazten direnean, zerga tasa adierazi behar da eta, nahitaez, ondoko eremuetako bat: zerga oinarria edo guztizko zenbatekoa. Guztizko zenbatekoa besterik ez bada adierazten, zerga oinarrian zero agertu beharko da.

Lotutako eta salbuetsi gabeko eragiketaren zehaztapenean, zerga tasa bat baino gehiago izanez gero, zerga oinarria eta zerga tasa adierazi behar dira nahitaez.

**BERRIKUSIA 6941 4.7. Erregistratu behar da eragiketa salbuetsi bati buruz jasotako faktura bat?**

Bai, kontuan hartuta fakturaren zenbatekoaren eremuetan "Zerga oinarria" bakarrik adierazi behar dela eta zero "kuota kengarria" adierazi.

**BERRIKUSIA 6942 4.8. Erregistratu behar da zergaren kargapean ez dauden eragiketa bati buruz jasotako faktura bat? informatu behar da beti, “0.00”**

Bai, kontuan hartuta fakturaren zenbatekoaren eremuetan "Zerga oinarria" bakarrik adierazi behar dela eta zero "kuota kengarria" adierazi.

**6968 4.9. Zer eragiketa jaso behar da "Araubide bereziaren gakoa / Transzendentzia" izeneko eremuan?**

Eremu horretan jaso beharreko eragiketak eta gakoak ondokoak dira:

01 - Araubide orokorreko eragiketa

02 - Enpresaburuek nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziari jarraiki jarduten duten pertsonei egindako eskuratzeetan, konpentsazioak ordaintzen dituzteneko eragiketak.

03 - Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide bereziari lotutako eragiketak.

04 - Inbertsioko urrearen araubide berezia.

05 - Bidaia agentzien araubide berezia.

06 - BEZako entitate taldeen araubide berezia (maila aurreratua).

07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia.

08 - IPSI / IGIC zergei lotutako eragiketak.

09 - Europako Erkidegoaren barruko ondasunen eskuratzeak eta zerbitzuen prestazioak.

12 - Negozio lokalak errentamenduaren ziozko eragiketak.

13 - Inportazio bati dagozkion fakturak (administrazio dokumentu bakar bati lotu gabe informatutakoak).

14 - BIHn sartu aurreko beste faktura batzuk.

**6943 4.10. Nola erregistratzen da subjektu pasiboaren inbertsio eragiketa bat (BEZaren 12/1993 FDAren 84.Bat. 2 eta 4 artikulua), Europako Erkidegoaren barruko ondasunen eskuratze eta zerbitzuez kanpokoa denean?**

Eragiketaren hartzaileak jasotako fakturaren datuak erregistratu beharko ditu, “Subjektu Pasiboen Inbertsioa” izeneko eremua hautatuta. Faktura horri dagokion jasandako kuota kalkulatu eta adierazi beharko du eta, bestetik, “Kuota kengarria” izeneko eremua bete beharko du.

Ez du inolako daturik erregistratuko Jaulkitako fakturen erregistro liburuan.

**6944 4.11. Nola erregistratzen dira Europako Erkidegoaren barruko ondasun eta zerbitzuen eskuratzeak?**

Europako Erkidegoaren barruko hornitzaileak bidalitako faktura Jasotako fakturen erregistro liburuan jasoko da, eta identifikatu egingo da 2 gakoa erabiliz, Identifikazio mota izeneko eremuan, bizilekuko herrialdeari dagokion atalean, hots, “IDType”, eta Europako Erkidegoaren barruko Operadorearen Zenbakia adieraziko da "ID" eremuan. “Herrialde kodea” izeneko eremua betetzea ez da nahitaezkoa.

“Araubide bereziko gakoa edo Transzendentzia" eremuan, 09 balioa adieraziko da. Beste alde batetik, aipatutako fakturari dagokion jasandako kuota kalkulatu eta adierazi beharko da, eta “Kuota kengarria" izeneko eremua bete beharko da.

Halakoetan, ez da informatu behar “Subjektu Pasiboen Inbertsioa” izeneko eremuaren bidez, eremu hori bakarrik erabiltzen baita aitortzailea BEZ zergaren subjektu pasiboa denean **BEZaren 12/1993 FDAren 84.Bat. 2 eta 4 artikulua**n xedatutakoari jarraiki, betiere eragiketak Europako Erkidegoaren barruko ondasun eta zerbitzuen eskuratzeez kanpokoak direnean.

Ez du inolako daturik erregistratuko Jaulkitako fakturen erregistro liburuan.

**EGUNERATUA 6945 4.12 Nola erregistratzen da inportazio bat?**

Eragiketa Jasotako fakturen erregistro liburuan jasoko da "F5" faktura motaren gakoa erabiliz.

Faktura zenbaki eta faktura data gisa, administrazio agiri bakarrean bertan ageri diren erreferentzia zenbakia eta aduana administrazioaren onartze data adierazi beharko dira, hurrenez hurren. Beste alde batetik, fakturaren zehaztapenak (mota, zerga oinarria eta jasandako kuota) adierazi beharko dira eta "Kuota kengarria” izeneko eremua bete beharko da.

ADBetako identifikazio-zenbakiak honako formatu hau dauka:

- AA: ADB atzeman den urtearen azken bi digituak
- PP: ADBren herrialdea (edozein IS kode Espainiakoaz gainera)
- 00RRRR: dokumentua aurkeztu den tokia
- AAAAAAA: "zenbaki sekuentziala" aurkeztu den tokian
- D: balidazio-digitua

H7etako identifikazio-zenbakiak honako formatu hau dauka:

- AAESH7xaaaaaaaaaRD
- AA: DUAren atzeman den urtearen azken bi digituak
- ES: ES finkoa.
- H7X: aduana-deklarazioa (x-a bakarrik, baina edozein letra edo zenbaki izan daiteke)
- aaaaaaaaa: zenbaketa sekuentziala, letrak (ez Ñ, O) eta zenbakiak (0...9) erabiliz
- R: aitorpen mota
- D: kontrol-digitua

Hornitzaileari dagozkion identifikazio datuetan, inportatzailearen eta erregistro liburuaren jabearen datuak adieraziko dira.

Inportazioei dagozkien datuak hornitzerakoan, aintzat hartu beharko dira ondoko zehaztapenak:

- "Zerga oinarri" gisa merkantziaren aduanako balioa adieraziko da, eta horri honako zenbateko hauek gehituko zaizkio: aplikazio eremutik kanpo sortutako kargena, inportazioaren ziozko kargena, aduanako balioa osatzen ez duten gastu osagarriena, hots, Erkidegoaren barruko lehen iriste lekuraino sortzen diren gastuena (Zerga oinarria, administrazio dokumentu bakarraren 47. laukia).
- "Zerga kuota" gisa, ordaindu beharreko zenbatekoa adieraziko da.

Administrazio dokumentu bakarra onartu ondoko gastuak, inportazioaren ziozko BEZaren zerga oinarrian aintzat hartu ez direnak, faktura bereizi moduan erregistratuko dira.

Garraio bitartekariaren fakturari gagozkiola, bere zerbitzu prestazioari dagokion zatia baino ez da erregistratuko (ez bezeroari gastu osagarri gisa galdatzen zaion inportazioaren ziozko BEZaren zenbatekoa).

Administrazio dokumentu bakarra erregistratzen denean, ez da beharrezkoa atzerriko hornitzailearen faktura erregistratzea, faktura hori aurretiaz jaso ez bada, behintzat.

Nolanahi ere, faktura horri lotutako datuak erregistratzen badira, "F6" faktura motaren gakoa erabiliz adieraziko da -Kontabilitateko egiaztagiriak) eta 13 gakoa erabiliz -"Inportazio bati lotutako faktura (administrazio dokumentu bati lotu gabe informatua)- "Araubide bereziko gakoa" izeneko aukera zabalgarrian.

"Zehaztapena" blokearen barruko "Jasandako kuota" izeneko eremua ez da bete beharko eta "Kuota kengarria" izeneko eremuan, "0" adieraziko da.

**Adibidea**:

Inportazio-eragiketa bat egin da Bilboko Aduanan eta honako faktura hauek egin dira:
1.- AEBetako hornitzailearen faktura. Horren zerga-oinarria 10.000 USD da; kopuru baliokidea: 6.719,55 €.
2.- Estatuko bitartekariaren faktura; datuak:
- Aduanan likidatutako inportazioaren zerga-oinarria (ADBko 47. laukia): 7.250,00 €
- Hornitzailearen faktura: 6.719,55 €
- Gainerako kontzeptuak (1): 530,45 €
- Bitartekariaren zerbitzu salbuetsia (2): 300,00 €
(1) Europako Batasuneko lehen xedera heldu arteko kargak, gastu osagarriak eta beste.
(2) 7/1994 FA, BEZari buruzkoa, 64. artikulua.
- Inportazioaren BEZaren kuota: 1.522,50 €
- Bitartekariaren zerbitzuen zerga-oinarria: 500,00 €
- Kuota: 105,00 €
Jasotako fakturen erregistro-liburuan honako idazpen hauek egin behar dira:

1. ADB; dokumentu honen identifikazio-zenbakia beraren erreferentzia-zenbakia izan behar, zerga-oinarria 7.250 € eta kuota 1.522,50 € (atzerriko hornitzailearen faktura ez da erregistratu behar).

2. Garraio-bitartekariaren faktura. Kargapean egonik salbuetsita ez dagoen zerbitzua baino ez da adierazi behar,honela: zerga-oinarria 500 € eta kuota 105 €.

Garraio-bitartekariak fakturatuko beste kontzeptu batzuk, hala nola inportatzailearen kontura egindako ordainketak edo gastu osagarriak, ez dira erregistratu behar.

### 6946 4.13 Inportazioarekin parekatutako eragiketetan, zer informazioa eman behar da?

BEZaren likidazioa 380 ereduaren bidez eginez gero, eragiketa ez da erregistratu behar SII sisteman.

Eragiketa jasotako fakturen erregistro-liburuan sartu behar da “F5” faktura-motaren gakoa ipinita.

Datu hauek eman behar dira:

- ☐ BEZaren likidazioa ADB batekin egiten bada, fakturaren zenbakia ADBn ageri den erreferentzia-zenbakia izan behar da eta fakturaren data aduana-administrazioak onartu duen data. Gainera, ondasunen inportazioa salbuetsita badago, gordailuaren araubidea aduanakoa ez beste bat delako, ADB erregistratu behar da.

Zerga-oinarria honako hau izango da:

- ☐ ADB bat aurkeztuz gero, honako hauek zehaztu behar dira: salgaiaren aduanako balioa, aplikazio-lurraldetik kanpo sortutako kargak, inportazioaren gaineko kargak eta aduanako balioan sartzen ez diren gastu osagarriak, hain zuzen ere Batasunaren barruko lehen xedera heldu arte sortzen direnak (Zerga-oinarria, ADBko 47. laukia).
- ☐ Gainerako kasuetan fakturan ageri den kontraprestazioaren zenbatekoa adierazi behar da.

Zerga-kuota ABDn adierazten den ordaindu beharreko zenbatekoa izango da; inportazioa salbuetsita badago, zero da.

**6947 4.14. Nola erregistratzen dira 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 16.1 artikuluak arautzen dituen nekazaritza, basogintza edo arrantzako konpentsazioen ordainagariak?**

Ordainagiriaren jaulkitzaileak Jasotako fakturen erregistro liburuan jasoko du, honela: “F6” faktura mota erabiliz eta “02” araubide bereziko gakoa edo transzendentzia erabiliz.

Zerga oinarri gisa, konpentsazioa kalkulatzeko oinarria adieraziko du eta fakturaren guztizko zenbateko gisa kontraprestazioaren guztizkoa.

“Zerga tasa” eta “Jasandako kuota” izeneko eremuak hutsik utziko dira eta ondoko eremuak, berriz, beteko dira: “Konpentsazio ehunekoa" eta "Konpentsazioaren zenbatekoa. Azkenik, kuota kengarri gisa, konpentsazioaren zenbatekoa adieraziko da.

**6948 4.15. 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 3.2 artikuluak arautzen duenari jarraiki, kreditu erakunde batek bidali eta faktura jaulkitzeko betebeharrik ez dagoen finantza zerbitzu salbuetsi bati dagokion ordainagiriak erregistratu behar dira?**

Ez, ordainagiri hori ez baita fakturatzat hartzen.

**6949 4.16.- 18/2013 FDk onartutako Fakturazio Araudiaren 3.2 artikuluak arautzen duenari jarraiki, aseguru erakunde batek bidali eta faktura jaulkitzeko betebeharrik ez dagoen aseguru eragiketa salbuetsi bati dagokion ordainagiriak erregistratu behar dira?**

Ez, ordainagiri hori ez baita fakturatzat hartzen.

**6950 4.17. Nahitaezkoa da kuota kengarriari doakion informazioa ematea?**

Bai. Hainbanaketa aplikatzen bada, kuota kengarria behin-behineko kenketaren ehunekoaren arabera adierazi beharko da.

**6951 4.18. Zer informazio jaso behar da "Likidazio aldia" izeneko blokean?**

Erregistratutako fakturaren ekitaldia eta jasotze aldia, azkena ere kenkaria baliatzeko erabilgarria dela.

**Adibidea**:

A enpresak erosketa baten ziozko faktura jaso du 2018/02/22 egunean eta 2018/03/05 egunean sartu du kontabilitatean. Erosketa urtarrilean egin zuen eta fakturaren bidalketa data 2018/01/30 egunekoa da. Zein epetan eman behar du datuen berri BIHren bidez? Zein liburutan erregistratu behar da eragiketa?

Datuak kontabilitateko erregistroa egiten den datatik aurrerako 4 egunen barruan eman behar dira: 2018/03/09 egunera arte. Jasotako fakturen erregistro liburuan jasoko dira 02 epealdian (2018ko otsaila).

**6952 4.19. Hainbanaketaren informazioa eman behar da BIHren bidez?**

Aplikagarria den hainbanaketaren ehunekoari buruzko informazioa BEZaren aitorpen-likidazio eredu egokiaren bidez emango da.

Hala ere, BIH dela eta, honako hau kontuan hartu beharko da:

- "Kuota kengarria" izeneko eremua behin-behineko hainbanaketa erabiliz kalkulatu beharko da.
- Inbertsio ondasunei dagokienez, urtero-urtero eman beharko da Inbertsio ondasunen erregistro liburuan jasotako erregularizazioen inguruko informazioa.

**BERRIA – 8281 4.20 Nola erregistratu behar dira fakturazio-akordio baten arabera zenbakirik ez duten fakturak?**

Jasotzaileak F1 gakoarekin erregistratu behar du faktura eta zenbaki sekuentziala esleitu behar dio; zenbakia berariazkoa izan behar da, hau da, ezin dira egon bidaltzaile eta data bereko bi faktura zenbaki berarekin.

**6953 4.21. Erakunderen batek aduana helbideratzearen erraztea onartuta badauka (ADB batzuek sortutako zorra laburbiltzen duen izapidea), nola egin behar da erregistroa?**

ADB bakoitza erregistratu behar da F5 gakoa erabiliz eta bakoitzaren onartze data adierazi behar da; hala eta guztiz ere, ADB guztiak data berean erregistratzen badira kontabilitatean, informazioa emateko bera izango da eta, hortaz, guztien berri erregistratu ahal izango da aldi berean.

**8282 4.22 Zer kasutan erabili behar da "LC – Aduanak - Likidazioa" gakoa?**

Gako horrekin identifikatu behar dira inportazioaren gaineko BEZaren likidazio osagarriak eragiten dituzten aduanako aitorpenen zuzenketak. Fakturaren zenbakia likidazioa identifikazio-zenbakia izan behar da (zenbakiaren hasieran LC, QZC, QRC, A01 edo A02 agertu behar da).

Zenbateko horiek geroratu egin daitezke zergaren autolikidazioan (inportazioaren gaineko BEZa geroratzea hautatu bada) eta, gainera, kenkari-eskubidea sor dezakete.

**8284 4.23 Nola erregistratzen dira ADBen zuzenketak?**

Zuzendutako ADB gako berri bakarrarekin erregistratu behar da; gako horretan bidalketa-data baino ez da aldatzen (zuzendutako ADB onartu den data). Zerga-oinarria, jasandako kuota, kuota kengarria eta guztirako zenbatekoa kalkulatzeko ADBn hasieran ezarritako zenbatekoen eta zenbateko berrien (zuzenak edo aldatuak) arteko kenketa egin behar da.

**BERRIKUSIA 6954 4.24. Nola erregistratzen da araubide bereziaren gako desberdina duten eragiketak hartzen dituen faktura bat?**

Sistemak ondoko gakoak erabiltzeko aukera ematen du:

| Gako bateragarriak | |
|---|---|
| 07 - Kutxa irizpidearen araubide berezia | • 01 - Araubide orokorra<br>• 03 - Ondasun erabilien araubide berezia<br>• 05 - Bidaia agentziak<br>• 12 - Negozio lokalaren errentamendua |
| 05 - Bidaia agentzien araubide berezia | • 01 - Araubide orokorra<br>• 06 – Maila aurreratuko BEZ taldearen araubide berezia<br>• 07 - Kutxa irizpidea araubide berezia<br>• 08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari edo produkzioaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak<br>• 12 - Negozio lokalaren errentamendua |
| 12 - Errentamendua | • 05 - Bidaia agentziak araubide berezia<br>• 06 - Maila aurreratuko BEZ taldearen araubide berezia<br>• 07 - Kutxa irizpidea araubide berezia<br>• 08 - Kanarietako zeharkako zerga orokorrari edo produkzioaren, zerbitzuen eta inportazioaren gaineko zergari lotutako eragiketak |
| 03 - Erabilitako | • 01 – Araubide orokorra |

| Gako bateragarriak | |
|---|---|
| Ondasunen Araubide Berezia | |
| 01 – Araubide orokorra | • 08 - IGIC, IPSI zergei lotutako eragiketak |
| 09 - ABIS | • 01 .-. Araubide orokorra |

07 gakoa (Kutxa irizpidea) informatu beharreko lehendabiziko gakoa izan behar da beti.

05 gakoa (Bidaia agentziak) informatu beharreko lehendabiziko gakoa izan behar da, salbu eta 07 gakoa (Kutxa irizpidea) erabiltzen bada.

06 gakoa (BEZeko entitate taldeen araubide berezia - maila aurreratua) informatu beharreko lehendabiziko gakoa izan behar da, 12 gakoa erabiltzen denean.

03 gakoa (Erabilitako ondasunen, arte gauzen, antzinako gauzen eta bildumako gauzen araubide berezia) lehena izna behar da informazioa ematerakoan 01 gakoarekin batera agertzen denean.

Konbinazio horren ondorioz, ez da zertan zenbatekoak gako bakoitzerako xehatu, baina bai, ordea, gako bakoitza kontuan hartuta informatu beharreko eremu gehigarriak aintzat hartu behar dira.

09 gakoa (Europar Batasunaren barruan ondasunak eskuratzea eta zerbitzuak ematea) izan behar da 01 kodearekin batera informatu beharreko lehen gakoa.

**8308 4.25 Inbertsio-ondasun bat eskuratuz gero, jasotzen den faktura erregistratzean nahitaez bete behar da “Inbertsio-ondasuna” eremua?**

Ez, ez da nahitaez bete behar. “Inbertsio-ondasuna” aukerakoa da beti.

**8309 4.26 Zer kasutan bete behar dira “Hurrengo aldi batean kentzeko”, “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak?**

“Hurrengo aldi batean kentzeko”, “Kenkariaren ekitaldia” eta “Kenkariaren aldia” eremuak aukerakoak dira beti; honako kasu honetan baino ez dira bete behar: jasandako kuota kengarriak “Likidazio-aldia” multzoan adierazitako aldiaren ondoren kentzen direnean. “Kenkariaren ekitaldia” eremuan kenkari-eskubidea erabiliko den ekitaldia zehaztu behar da eta “Kenkariaren aldia” eremuan eskubide hori erabiliko den aldia.

## 5. INBERTSIO ONDASUNEN ERREGISTRO LIBURUA.

### 6807 5.1. Zer eragiketa erregistratu behar da?

Liburu hau hainbanaketa erregela aplikatzen zaien subjektu pasiboek baino ez dute arteztu behar. Datu hauek eman behar dira: ondasunaren identifikazioa; ondasuna erabiltzen hasi den data; behin betiko urteko hainbanaketa; kenkarien urteko erregularizazioa. Ondasuna eman bada, inbertsio ondasunari baja eman behar zaio, eta datu hauek azaldu behar dira: ematea frogatzen duen fakturaren erreferentzia; horren erregularizazioa.

Liburu honen berri urtero eman behar da; bertan ezartzen den informazioa inbertsio ondasunen erosketa eta salmenten erregistroaren osagarria izango da jasotako eta egindako fakturen erregistro liburuetan.

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera egin behar diren erregistro guztiak kontuan hartuko dira, baldin eta erregularizazio aldian dauden inbertsio ondasunei badagozkie, ondasuna noiz eskuratu den gorabehera.

## 6. EUROPAKO ERKIDEGOAREN BARRUKO ERAGIKETEN ERREGISTRO LIBURUA

### 6808- 6.1 Zer eragiketa erregistratu behar da?

Liburu honetan bi motatako eragiketak baino ez dira erregistratzen, BEZaren Araudiaren 66. artikuluan aipatzen direnak, hain zuzen; hona:

1. BEZaren 1994/7 Foru Arauko 70. artikuluko lehen apartatuko 7. zenbakian aipatzen diren peritu-txostenak edo lanak egiteko behar diren ondasunen bidalketak eta harrerak.
2. BEZaren 37/1992 Legeko 9. artikuluko 3. apartatuan eta 16. artikuluko 2. apartatuan aipatzen diren ondasun-transferentziak eta Batasunaren barruko ondasun-eskuraketak.
3. Ondasunak kontsignan saltzeko akordio batean aipatzen diren ondasunen bidalketak eta harrerak (akordio hori zergaren legeko 9 bis artikuluan aipatzen dira).

Aurreko 1. eta 2. puntuetako eragiketei dagokienez:

Aitortutakoa eragiketako ondasunen hartzailea bada, “D” gakoa erabiliko da; berriz, aitortutakoa eragiketako ondasunen igorlea bada, “R” gakoa ipini behar da. Eragiketa faktura batean dokumentatzen bada, egindako edo jasotako fakturen erregistro-liburuan jaso behar da, kasuan kasukoan.

Liburu horretako eragiketetan sortzapena badago (batez ere Batasunaren barruko ondasun-eskuratzeekin parekatutako eragiketetan), eragiketa jasotako fakturen erregistro-liburuan ere ezarri behar da, 09 gakoa erabiliz.

